

hh
hik hasi

193

20 urte euskal hezkuntza ospatuz



REGGIO EMILIAKO ESPERIENTZIA • JESUS MARI MUJICA •

LOMCE-RI EZ • ANTZERKHIZKUNTZA PROIEKTUA • HIK HASI OSPAKIZUNETAN

• ATXIKIMENDU SEGURUA • ITSASO GUTIERREZ

8-12
urte

Mundua baloi batean

Patxi Zubizarreta + Elena Odriozola

Nikolasek baloi hartu eta penaltia botatzeko prest jarri da. Ladarra hartzeko atzera egiten hasi da eta poliki-poliki, olortzeko, hain atzera ioan da, ezen munduari buelta eman baitio.



Argixorgin

Estibalitz Vivanco + Joseba Larretxea

Iluek zaltasunak ditu batzuetan zuzen abuskataeko, baina eze, jende aurrean irakurri behar duenean, eskolan esate baterako. Horregatik, alabari lagunduko dion logopeda bat etxera eramateko erabakiko dute gurasoek. Dena den, Ilaneri logopeda etxera sartzen denetik, ez zaio parte onekoa iruditzen.

Ipurtargien herrian.

Ramon Olasagasti + Mikel Valverde

Lur karabana batean bizi da. Guztiek uste dute sorgina dela, eta beldurrez ez dira harengana hurbiltzen. Herriko haurrak, halere, jakin-min handia dute eta egun batean Larrengana joango dira.



aurkibidea



10
gaia

REGGIO EMILIA

Komunitate oso baten esperimendu pedagogikoa da Italiako Reggio Emiliako hezkuntza-eredua. Hango eskoletako esperientziaz hitz egiteak hiriari buruz mintzatzea esan nahi du. Komunitate horrek haurtzaroan eta heziketan inbertitu egin baitu, denbora eskainiz, baliabideak bideratuz eta ekarpen ekonomikoak eginez.



16
elkarrizketa

JESUS MARI MUJIKA

Mundua paradigma berri baten beharrean dagoen honetan, bizitza ulertzeko zereginean hezkuntzak betetzen duen funtzioa giltzarria izan daitekeela dio Mujikak. Filosofiako eta Etikako irakasle gisa ia 40 urtez izandako esperientziaz mintzo da eta argi du eskolaren zeregina zein den: belaunaldi berriak mundu hobe baterako heztea, hain justu.

5 editoriala

6 hizpide izan da

8 hizpide izango da

10 gaia

REGGIO EMILIA, hiria heziketaren gordailu

18 elkarrizketa

JESUS MARI MUJIKA. Filosofiako eta Etikako irakaslea

26 LOMCE-ri ez! EHn gure hezkuntza eraiki

30 ekarpenak

Antzerkhizkuntza proiektua

34 ekarpenak

20 urteotako bidelagunekin hasi ditu hik hasik ospakizunak

36 galdeidazu.

Atxikimendua. EZOZI ARIZAGA

40 hik hasi-ren proposamena

Amaiurko gaztelua

42 Atzeko atetik

ITSASO GUTIERREZ

Argitaratzailea: **XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com;
Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu eta Arantzazu Muñoa.
Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Alex Barandiaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Uxue Ugartemendia. Amaiurko argazkia: Ixabel Aleman. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZAS A.S.L Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2014-11-14). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SALA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



20. ikasturtean harpidetzen direnentzako **OPARIAK**



hik hasi
harpidetuta



**Sarrionandlaren
ipuin laburren
liburua**



Hazi Hezi
harpidetuta



**69 abesti
jolasteko
CDa**



+



+



www.hikhasi.com/harpidetza

editoriala abendua

Gure komunitatean “idiotarik” nahi ez dugulako



Reggio Emilian etengabeko elkarrizketa, elkarlana eta negoziazioa dago familien, eskolaren, instituzioen, elkarleen eta gainontzeko agenteen artean. Akordioa egina dute: “Haurren heziketa eta ongizatea denon ardura da eta lehentasun osoa du”. Itun horren aurrean erabateko batasuna du komunitate osoak.

Hezkuntza kontu politikoa da. Argi eta garbi utzi ziguten hori Italiako Reggio Emiliako haur-eskoletako profesionalek azaroaren 14an Bilbon eta 15ean Donostian, Hik Hasik antolatutako jardunaldietan. Haurren kultura hiri-kudeaketaren erdigunean jarri dute han. Haurtzaroa ikusgarri bilakatzen saiatzen dira, umeen eskubideak defendatzen eta haurren gaitasunak sustatzen. Haurrei, familiei eta profesionalei zentralitatea ematen dien hezkuntza-politika saretuz joatea esan nahi du horrek, gertuko gestioan oinarritzea, komunitatearen inplikazioa bilatzea eta hiriko hainbat agente ezberdinen —eskola, familia, udala, kultur elkartea...— arteko elkarlana bideratzea.

“Politika” hitza latineko “*politicus*”-etik dator, eta hori antzinako grezierako “*πολιτικός*”-etik. 4.000 urte baino gehiago dituen kontzeptua da, hortaz. Hiritarrei interesatzen zaizkien gaiez arduratzea esan nahi du politikak, gai publikoak tratatzea eta ongizate komuna bermatzea. Nolako etxebizitzak eta non egin erabakitzea, saneamendu-sarearen egitea, gaztetxea eraikitzea, kultur elkartea dinamizatzea... hori guztia da politika. Baina nolako eskola nahi dugun pentsatzea ere politika da, baita

haurrei entzutea eta erabakimena ematea ere, edota haurtzaroan inbertitzea gizarte osasungarriago bat egiteko.

Maila berean jartzen ote ditugu, ordea, herriko hirigintza eta haurren heziketa? Ez al zaigu lehena denon interesekoa iruditzen eta bigarrena norbere etxekoa edo eskolakoa? Gauza batzuetan esku-hartzeko eskubidea aldarrikatzen dugun bitartean, beste batzuk ez al ditugu delegatzen? Finean, ez al diegu gauza batzuei balio publikoa ematen eta besteei pribatua?

Reggio Emilian etengabeko elkarrizketa, elkarlana eta negoziazioa dago familien, eskolaren, instituzioen, elkarleen eta gainontzeko agenteen artean. Akordioa egina dute: “Haurren heziketa eta ongizatea denon ardura da eta lehentasun osoa du”. Itun horren aurrean erabateko batasuna du komunitate osoak. Estatu mailako organoetatik datorren agindua datorrela ere, markatua dute norabidea eta badituzte baliabideak euren hezkuntza-politika josiz joateko. Argi dute eskola ezin dela ulertu jakintza eraikitze eta pentsamendua lantzeko eremu bat bezala, baldin eta ez badago elkarrizketan oinarritua. Jakintza hori komunitatearekin elkarrizketan jarri behar dela diote,

alegia, eskolak eta komunitateak oso lotura dinamikoak eta etengabeak aurkitu behar dituztela elkarrekin hazi ahal izateko. Hortaz, Reggio Emiliako instituzioak eta hiritarrak ez dira hezkuntza lehen planoan jarri eta eskolarekin inplikatzeko diren bakarrak; alderantziz ere berdin gertatzen da. Eskola komunitatera irekia dago, hirian inplikatzeko da eta beste erakundeekin sinergian dago. Eskolak ere kontu publikoetan, denen interesekoak diren auzi horietan —alegia, politikan— parte hartzen du.

“Politika” bezalaxe, “idiota” hitza ere antzinako Grezian datorkigu (*ἰδιότης*, *idiōtēs*). Kontu publikoetz arduratzen ez zen hiritarrari deitzen zioten horrela, pertsona indibidualstei eta egoistei, hau da, politikan parte hartzen ez zutenei. Geroztik beste erabilera batzuk hartuz joan da hitza. Baina jatorrizko esanahia gaur eguneko errealitatera ere bikain egokitzen da. Gure artean nahi ote dugu, baina, bere burua soilik arduratzen den jenderik? Auzi publikoak, hau da, guztion intereseko kontuak axola ez zaizkien pertsonak nahi ote ditugu gure inguruan? Finean, norbere burua “idiota” izatera kondenatzeko arriskua duen komunitateko kide izan nahi al dugu?

hizpide



Heziberri 2020ko curriculum dekretuen zirriborroak aurkeztu dizkie Eusko Jaurlaritzak hainbat eragileri

Eredu pedagogikoaren markoa ezarri ostean, bigarren urratsa egin du Eusko Jaurlaritzak Heziberri 2020 proiektuari dagokionez, urtebeteko bidearen ostean, curriculum dekretuak aurkeztu dizkie hainbat eragile-ri. Cristina Uriarteren sailak urte buka-erarako onartu nahi du curriculum dekretua, datorren ikasturtean abian jartzeko.

Zirriborroak dekretuei “euska-ldimentsioa” eman nahi die, eta horrela *Euskal Herria* kontzeptua edukietan eta ikasgaietan txertatzea proposa-tzen du, baina ez du LOMCE saihe-s-ten, Werten dekretuko hainbat atal hitzez hitz jasotzen baitira.

Ikastolen Elkarteak oharra kalera-tu zuen Uriartek zirriborroa ezagutu ostean: «Hurrengo egunetan sakon aztertuko ditugu gaur aurkeztu dizki-

guten zirriborroak; alde batetik, Eusko Jaurlaritzak Hezkuntza Eragileei eskatu dizkigun ekarpenak egiteko, eta, bestetik, baloratzeko zirriborro-ek Marko Pedagogikoaren ildo nagusi-ak, hots, konpetentzietan oinarritu-tako Euskal Curriculum sustatu eta garatzen ote duten eta euskaraz ar-daztutako eleaniztasunaren aldeko apustua egiten ote duten, edo LOM-CEren baitan onartutako curriculum dekretuei jarraipena egiten dieten ala ez», adierazi zuen. ELAk bestalde, «onartezina» iritzi zion prozesuan sin-dikatuei parte hartzeko aukerarik eman ez izana, eta edukian sarturik, “Werten hezkuntza erreformak ezar-tzen dituen eraso eta kontrol neurriei aurre nola egingo dien inola ere ezai-patzea” kritikatu zuen.

Trebiñuko biztanleen borondateari bizkarra eman diote Madrilen Arabaren parte izatea ukatuz

Trebiñuko eta Argantzungo Udalek gehiengo osoz egindako es-karia atzera bota zuten Espainiako Kongresuan PPK eta PSOEk, eta hala beraz, Trebiñu Burgosetik banandu eta Araban integratzeko Eusko Lege-biltzarrak onartutako lege ekinaldiari atea itxi zioten. Trebiñuko eta Argan-tzungo herritarren ahotsari entzun-gor egin, eta probintzia mugak alda-tzeko ekinaldi legegilearen trami-tazioaren aurka egin zuten. Amaiurrek, EAJk eta CIUK lege proposamera tra-mitera onartzearen alde egin zuten Madrilgo gorteetan azaroaren 18an egin zen eztabaida osteko bozketan, eta abstenitu egin ziren IU eta UPD al-derdiak.

Egun horretan lehen aldiz iritsi zen Trebiñu Araban integratzeko ez-baida Madrilgo gorteetara, eta bertan izan ziren herritar asko eta asko, eta baita Udalbiltzako eta Eusko Legebil-tzarreko ordezkari bat ere, EAJko Xabier Agirre, EH Bilduko Belen Arrondo eta PSE-EEko Txarli Prietok osatua, besteak beste. Guztiek “kon-derriko biztanleen nahia errespetat-zea eta auzia behingoz konpontzea” eskatu zuten. Alta bada, ukatu egin zieten borondate hori Madrilen.

izan da

Sindikatu guztiek kritikatu dute Jaurlaritzaren Hezkuntza arloko 275 lanpostu publikoko eskaintza



LAB, ELA, EILAS, UGT eta CCOO, hau da, Hezkuntzako mahai sektorialean ordezkaritza duten sindikatu guztiek kritikatu egin dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren 275 lanpostuko LEP Lan Eskaintza Publikoa. Jaurlaritzak abendu honetan egin asmo du lehen lan eskaintzaren deialdia, eta datorren urtarrilean bigarrena; 275 lanpostu publiko eskainiko dira, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako espezialitateetakoak.

Eusko Jaurlaritzak aitortu du lanpostu gehiago eskaini beharko lirakeela berez dagoen beharrari erantzuteko, eta nahiago lukeela “mugarik ez balitz”, alabaina adierazi du eskain dezakeen kopuru handiena dela 275eko hori, eta eskaintza egitea bera albiste ona dela esan dute ordezka-

riek, “275 lagunek lan finkoa eskuratzeko duten aukerak interpretazio postiboa baino ezin du izan”. Lanpostu horien bitartez hezkuntza-sistemari egonkortasun handiagoa emango diola nabarmendu du Cristina Uriarteren sailak.

Haatik, sindikatuek kopuru hori “irrigarritzat” jo dute, eta adierazi kopuru horrek irakaskuntzak dituen beharrak eta hutsuneak ezin dituela bete. ELAko Hezkuntza arloko ordezkarri Xabier Irastortzak adierazi du LEP honek jota utziko duela hezkuntza-sistema. “Behin-behinekotasuna % 30 da, eta 4.500 lanpostu baino gehiago egonkortu behar dira. LABen iritziko, ostera, lan eskaintza hau “orain arte landutakoa baino eskasagoa da”. 2009an adostutako 5.100 lanpostuetatik 3.044 ez dira eskaini.

Ziburuko karrikak bete zituzten Kaskarotenea ikastolaren alde

Pasa den azaroaren 8an manifestazio jendetsua egin zuten Ziburun *Ikastolak ez bunki* lelopean. Era horretan azken hilabeteetan Guy Poulou herriko auzapezak Kaskarotenea ikastolaren kontra egin dituen erasoak salatu dituzte. Poulouk auzitara eramanean du uikastola, orain dauden lur eremuan segituz gero, egun bakoitzeko isuna 100 eurtoik 400 eurora igotzeko mehatxua egin zuen. Manifestariak, alabaina argi zabaldu dute mezua: Ziburun ikastola bat izanen da.

Hiri solidario eta anitz baten alde, Gora Gasteiz ekinbidea sortu dute

Gasteizko alkate Javier Maroto eta PP bere alderdiak abiarazi duten kanpainaren aurrean orain arteko bizikidetza ereduaren aldeko ekinbidea sortu da hirian: Gora Gasteiz izeneko. Hiri norgehiagoko sozialetik atera, eta bazterketa eta arrazakeria alde batera uztea ditu helburu hainbat elkarte eta pertsona ezagun biltzen dituen taldeak. “Hiri solidario bat behar dugu, bere ingurunearekin harremanean dagoen hiri plurala”, adierazi dute eragileek taldearen aurkezpenean.

hizpide



Itsaspeko Bihotzak, literatura areto berria sortu du Galtzagorri Elkarteak

Azaroaren 1ean Arrasaten inauguratu eta Hernanitik igaro ostean, abenduaren 2tik 12ra bitartean Donostiako bonberoen eraikin zaharrean (Eason) izango da Itsaspeko Bihotzak Galtzagorri Elkartearen areto literario berria. Aitziber Alonsok, Mireia Delgadok eta Miren Guillok diseinatu eta zuzendutako areto honek irakurtzeko zaletasuna sustatzeaz gain, genero berdintasuna lantzea du helburu, euskarazko haur literatura oinarri hartuta. Abenduan Donostian egon eta gero, 2015ean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hainbat herri bisitatuko ditu.

Galtzagorri Elkartearen areto berriak ibilbide pedagogiko-artistikoa proposatzen du. Saio gidatuak eskainiko dira 8 eta 11 urte bitarteko haurrentzat. Donostian bezala, herri edo hiri bakoitzean gutxienez 10 saio gidatu eskainiko dira, 25 hurrez osatutako taldeentzat. Saioak goizez izango dira eta arratsaldez aretoa zabalik egongo da honen ibilbidea modu “askean” egin nahi duten helduentzat ere.

Itsaspeko Bihotzak aretoan egingo den ibilbide didaktikoa, itsaso batean kokatutako bost gunetan oinarrituko da. Gune bakoitzean lantzen den eduki ideologikoa, artearen bitartez egi bihurtuko da. Ilustrazio, artisau elementu eta liburuen bitartez lortu da helburu hau eta txoko bakoitzean, modu desberdinean egingo da edukiaren lanketa hori: ipuintxoak kontatuz, ikus-entzunezkoak ikusiz, abestitxoak kantatuz, jolasak eginez... Hala, besteak beste, Aitziber Alonsoren lanaz gain, Elena Odriozola eta Eider Eibarren ilustrazio-lanak ere bilduko ditu Itsaspeko Bihotzak aretoak.

Bigarren hizkuntzen ikaskuntza eta Moodle-ren erabilera UEUren ikastaroetan

Urtarrilaren 13tik otsailaren 17ra “Bigarren Hizkuntzen ikaskuntza kulturarteko testuinguru inklusiboa” izeneko formazio saioa egingo du UEUk Arkaitz Zarraga Azurmendik eta Mikel Etxaburu Osak gidatuta, Bilboko Luis Briñas BHIIn. Bertan gaitasun komunikatiboaren alderdiak ezagutzeaz gain, testu-generoetan oinarritutako ikas prozesuen ezaugarriak identifikatzeko trebakuntza jasoko da, ulermen estrategiak landuko dira, hizkuntzazkoak ez diren ikasgaietan hizkuntzaren erabilera egokia bultzatzeko urratsak emango dira eta unitate didaktikoak egiteko irizpideak ezagutu ahaliko dira.

Urtarrilean irakasleei zuzenduriko beste ikastaro bat ere hasiko du UEUk: “Nola erabili Moodle geletan, PBL edo problemetan oinarritutako metodologiek”. Urtarrilaren 12tik martxoaren 23ra egingo da, Bilboko Luis Briñas BHIIn hau ere. Estibaliz Sáez de Cámara izango da irakaslea eta formazioaren helburu nagusia da irakasleak irakaskuntza-metodologia aktiboen diseinu eta aplikazioan trebatzea, batik bat, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (PBL) izeneko metodologian.

izango da

Hezkidetza ikastaroa antolatu dute Gasteizen Urtxintxak eta Emagin Elkarteak



Bilbon eta Donostian ikastaro bana egin eta gero, Urtxintxa Eskolak eta Emagin Elkarteak Hezkidetza ikastaroa antolatu dute Gasteizen 2015eko urtarriletik maiatzera.

Besteak beste, ondoko gaiak jorratuko dira ikastaroan: feminismoaren oinarriak, genero sistemak, hezkidetza jarrera hezitzailean, sexualitatea, idarkeria sexista, hizkuntza eta irudia, espazioak, parte-hartzea, emakumeak eta etorkinak, proiektuen planifikazioa eta kudeaketa babilioen ikuspegitik, elkarteekin bisitak

eta askoz gehiago.

Formazio saioak Gasteizko Amaia Zentroan egingo dira, astelehenero 17:00etatik 20:00etara, eta baita zenbait larunbatetan ere. Orotara 80 ordu teoriko eta 20 ordu praktikoz izango dira eta 220 €ko kostua du ikastaroak. Matrikulazio epea abenduaren 19ra arte dago zabalik. Izena ematea www.urtxintxaeskola.org/matrikulazioa helbide-atarian, 944320445 telefono zenbakian edota urtxintxa@urtxintxaeskola.org helbidera idatziz egin daiteke.

Bigarren Hezkuntzako irakasleekin gogoeta-saio irekia antolatu du Hik Hasik

Bigarren Hezkuntzan lanean ari diren profesionalen kezkek eta aurrera begira dituzten erronkak ezagutzeko hausnarketa-saio irekia antolatu du Hik Hasik 2015eko urtarrilaren 15ean, 18:00etan Donostian. DBHko eta Batxilergoko hezkuntza-jardunak dituen ahulguneak eta indarguneak nahiz mehatxu eta aukerak identifikatzea da xedea, baita irakasle horien beharrak lehen eskutik ezagutzea ere. Izan ere, eskura dituen tresnak erabiliz —informazioa eta formazioa— beroien bidelagun izan nahi du Hik Hasik.

Bigarren Hezkuntzaren gainean arduratuta dagoen edonor ongi-etorria izango da saiora. Aldez aurretik, baina, izena eman behar da gida@aldizkaria.com helbidera idatziz edota 943 371 408 telefonora deituz.

“El Martinet” eskolaren aurkezpena Iruñean

Abenduaren 11n Nafarroako filmotekan (Antonio Perez Goiena 3, Iruñea) Kataluniako Ripollet herriko “El Martinet” eskolako esperientzia aurkeztuko da, arratsaldeko 5etan hasita. 3tik hasi eta 12 urte arteko hezkuntza-proiektu unitario eta berri-tzailea dute bertan.

GAIA

**Reggio Emilia,
*hiria heziketaren gordailu***





Komunitate oso baten esperimentu pedagogikoa da Italiako Reggio Emiliako hezkuntza-eredua. Hango eskoletako esperientziaz hitz egiteak hiriari buruz mintzatzea esan nahi du. Komunitate horrek haurtzaroan eta heziketan inbertitu egin baitu, denbora eskainiz, baliabideak bideratuz eta ekarpen ekonomikoak eginez. Reggio Emiliako esperientzia bizitzaren kontzeptu laiko baten gainean eraiki dute, eta sinetsita daude hezkuntzari buruzko euren diskurtsoa ez dela pedagogikoa soilik, baita politiko eta etikoa ere. Esperientzia horren guztiaren berri eman zieten Maddalena Tedeschi pedagogoak eta Chiara Spaggiari hezitzaileak Euskal Herriko hezkuntza alorreko 880 profesionali, azaroaren 14an Bilbon eta 15ean Donostian, Hik Hasik antolatutako jardunaldietan.

Heziketa politika ere bada. Premisa horretatik abiatuta, Reggio Emiliako haur-eskoletako teoria eta praktika pedagogikoa azaltzeaz gain, heziketaren gainean duten ikuspegi politiko eta etikoaren berri ere eman zuten Maddalena Tedeschi pedagogoak eta Chiara Spaggiari hezitzaileak Hik Hasik antolatutako jardunaldietan. Izan ere, Reggio Emiliakoa ez da eredu itxia eta ez du metodo zehatzik, baizik eta enfoke ireki bat da, etengabe egokitzen eta aldatzen ari den esperientzia bat. Horren atzean, ordea, heziketari eta haurtzarolari berebiziko garrantzia ematen dion filosofia orokorrago bat dago. Hiri batean haurren kultura erdigunean ezartzeak politika bat josten joatea esan nahi baitu, gertuko gestioan oinarritzea, komunitatearen inplikazioa bilatzea, eta hiriko agente ezberdinen—eskola, familia, udala, kultur elkarteak...— arteko elkarlana bideratzea. “Reggio Emilia ahalegin handia ari da egiten jendearen eta biztanleriaren aldaketak ulertzeko, eta beraz, familiek dituzten beharrez eta eskubi-deez ere kontziente izateko eta premia horiek asetzeko”. Hortaz, azaroaren 14an Bilboko Bizkaia Aretoan eta 15ean Donostiako Kursaal Jauregian elkartu ziren 880 hezitzailek ez zuten, akaso, egun batetik bestera euren jardunean txertatzeko moduko formularik ezagutuko, bai ordea, orain arteko ikuspegia osatzen lagun diezaieketen

zenbait zertzelada jaso.

Komunitate oso baten esperimentu pedagogikoa bezala deskribatzen dute Reggio Emiliako eredua Tedeschik eta Spaggiarik. Haien esanetan, Reggio Emiliako esperientziari buruz hitz egiteak hiriari buruz mintzatzea esan nahi du, eta ez soilik eskolaren gainean jardutea. Komunitate horrek haurtzaroan eta haur-eskoletan inbertitu egin du, denbora eskainiz, baliabideak bideratuz eta ekarpen ekonomikoak eginez. Baina ez hori bakarrik, gogoeta sakona egin du heziketak pertsonen eta gizartearen ongizatean izan dezakeen eraginaz, eta pixkanaka haurrak, familiak eta profesionalak erdigunean jartzen dituen hezkuntza-politika zabal bat saretuz doa.

Zer-nolako balioa du heziketak? Eta ikerketak? Eta jakintzak? Etengabe galdera horien inguruan hausnartzen ari den komunitate bat izan behar da gogoan Reggio Emiliatz hitz egitean. 50 urte baino gehiagoko esperientzia dute bertako haur-eskolek. Tradizio komunistako herrian, industrializazio garai betean, emakumeen borrokaren ondotik, sortu ziren lehen haur-eskolek. Uneotan 0-3 urte arteko umeentzako hamabi eskola dituzte udalak zuzenean kudeatuta, eta beste hamabi, berriz, kooperatiben bitartez koordinatuta. 3-6 urte arteko umei dago kienez, 21 eskola daude zuzenean udalak kudeatuta; 21 eskola katoliko;

G



Reggio Emilia

eta hamar, berriz, estatuaren esku daude. Baina, datu horiez harago, beti hiriari argi eduki da, zerbitzuaren izaera era batekoa edo bestekoa izanda ere, udalak hezkuntzaren ardura bere gain hartu behar duela, izaera publikoaren eman behar zaiola hezkuntzari eta aterki antzeko bat eratu behar dela zerbitzu horiei guztiei abar emateko egitura bateratu batean.

Zein oinarri du, ordea, Reggio Emiliako esperientziak? Ez da metodo bat, eta horixe da bere zutabe garrantzitsuetariko bat. Izan ere, Tedeschik azaldu bezala, “metodo” hitzak heziketa-jarduera bati egiten dio erreferentzia, eta soil-soilik pentsamendu pedagogiko jakin bat edota erreferentziaren autore bat izaten du kontuan. Horrexegatik, nahiago dute “enfoke” edo “esperientzia” hitzak erabiltzea Reggio Emiliaren aritzean, euren jardueraren zerbitzu dinamiko eta irekia dela uste baitute, etengabe eraikitzen ari diren esperientzia bat. “Guk ere erreferentzia bat, figura garrantzitsu bat badaukagu: Loriz Malaguzzi irakaslea, hain zuzen, berak sortu baitzuten pentsamendu honen oinarriak. Baina Malaguzzik ere jakin zuen autore desberdinei begiratzen eta haien pentsamendu, ideia, kontzeptu eta erreferentziak hartzen eta hezkuntza-praktika etengabe eraldatu daitekeen zerbitzu batean ulertzen”.

Malaguzzik egin bezalatsu, gaur egun ere, Reggio Emiliako komunitateko kideak heziketaren interpretazio eguneratua egiten saiatzen dira, hezkuntza modu ireki eta zabalean ulertzen. Irekitasun hori bizitzaren gaineko kontzeptu laikoarekin lotzen du zuzenean Tedeschik: “Gure enfokearen irekitasuna garrantzitsua da, eta horrek lotura zuzena du ondoko ideiare-



kin: Reggioko esperientzia bizitzaren kontzeptu laiko baten gainean dago eraikia. Ez du bilatzen ortodoxiarik edota pentsamolde jakin bat soilik jarraitzeak ekar dezakeen itxitasun edo mugarik. Eta aldiz, saiatzen da egitura hori beti irekita mantentzen, beharrezkoa denean aldatzeko, eraldatzeko eta eguneratzeko”. Horrelako pentsamendu ireki eta laiko bat abian jartzeko, ordea, beste baldintza bat ere oso garrantzitsua dela dio: jakin-mina bultzatzea, hain juxtu, hau da, haurrek nahiz helduek ulertzeko eta jakiteko duten gogoia nahiz elkarrizketarako sustatzea.

Mugak gainditzeko borondatea

Reggio Emiliako esperientziaren beste zutabe garrantzitsuetariko bat mugak gainditzeko hiritarrek duten borondatea da. Desioaren bitartez, edota utopiaren bidez, etorkizuna zer eta nolakoa izan daitekeen imajinatzen ahalegintzen dira, diziplinarteko begirada erabiliz. Hori azaltzeko Kenneth Gergen pedagogo eta soziologo estatubatuarren teoria ekarri zuen gogora Tedeschik: “Norbere eta beste-

aren arteko elkarrizketa behar da hirugarren nortasun bat sortzeko. Alegia, nik neure pentsamenduak ditut, zuk zure pentsamenduak dituzu, baina gure eztabaidaren amaieran, gure negoziazioaren bukaeran, gure pentsamenduak ezinbestez lekuz aldatuko dira eta hirugarren aukera bat topatu ahal izan dugu”. Hizlariaren aburuz, Gergen teoria horrek zerikusitu zuzena du aurrez aipatutako enfokearen irekitasunarekin. Sinetsita daude euren heziketari buruzko euren diskurtsoa politikoa ere badela. Eta zentzu horretan aldaketa ekonomikoak, zientifikoak, artistikoak eta gizakiaren arteko harremanen aldaketak izan behar dituztela kontuan. Beraz, diskurtso politiko hori gizakiaren alderdi antropologikoarekin ere topatzen da, eta ikuspegi irekia dutenez, prest daude aldaketa antropologiko horiek dakartzaten erronka berriei aurre egiteko.

Reggio Emiliako esperientziaren bi zutabe garrantzitsuenek —enfokearen irekitasuna eta mugak gainditzeko borondatea— sostengatzen dute bertako hezkuntza-politikaren xedea: haurtzarora ikusgarri bilakatzen saia-

tzea, umeen eskubideak defendatzea eta haurren gaitasunak sustatzea. Testuinguru horretan, zer nolako rola jokaten dute Reggio Emiliako haur-eskolek? Euren esperientzia hezitzailea kokatzen eta esperientzia horren gaineko pentsamendua lantzen saiatzen dira Reggioko haur-eskoletako langileak galdera epistemologiko horri erantzunez. “Ikusi behar dugu ea eskola kultura transmitzera mugatzen den edota kultura eta demokrazia parte-hartzailea eraikitzeko leku bat ere izan daitekeen”. Hortaz, erronka izugarria dutela uste dute Tedeschik eta Spaggiarik: eskola beti dinamika eta jarduera berberak eskaintzen dituen gune gisa ikusi ordez, izaki pentsalari batek bezala funtzionatzen duen espazio moduan ikusten ahalegintzen dira, esperimentatuz, arriskatuz eta egunerok berrikuntzak txertatuz.

Eguneroko praktikari ematen dioten garrantziaren ondorioz, ez dute uste heziketa-eredu ofizialek edota unibertsitateek gero eskoletan esperimentatzeko teoriak egin ditzaketarik, baizik eta alderantziz. “Beharbada anbizio handiz”, Reggio Emilian pentsatzen dute praktikatik ateratzen dela teoria. Edo behintzat praktika eta teoria elkarrekin estuki loturik egon behar dutela. Eta subjektu biak, hau da, eskolak eta unibertsitatea maila berekotzat jotzen dituzte. “Howard Gardnerren ideia bat erabiliz, esango nuke, Reggio Emilian benetako unibertsitatea haur-eskolen gainean hazten ari den eskola dela”, argitzen du Tedeschik, eta erakunde desberdinen arteko elkarriketa eta sinergia aldarrikatzen du; beti ere, dokumentazioan, hau da, eguneroko praktikako ebidentzietan oinarrituko dena eta argudiatzeko aukera

emango duena.

Eskola leku publiko gisa hautematen dute Reggio Emilian, topagunea da, eztabaidarako eta elkarriketarako espazioa, haur eta hezitzaileek (langile guztiak hartzen dira hezitzailetzat baita garbitzaile edota sukaldariak ere) familiekin, auzotarrekin edota komunitate osoarekin batera parte hartzen duten tokia. Hortaz, haur-eskolen esperientzian ere hasieratik elkarriketari bidea egiten saiatu dira, komunitateko kide guztien arteko komunikazioari ateak irekitzen. Argi baitute eskola ezin dela ulertu jakintza eraikitzeko eta pentsamendua lantzeko eremu bat bezala, baldin eta ez badago elkarriketaren oinarritua. Jakintza hori komunitatearekin elkarriketan jarri behar dela gaineratzen dute, alegia, eskolak eta komunitateak oso lotura dinamikoak eta etengabeak aurkitu behar dituztela elkarrekin hazi ahal izateko.

Komunitate osoaren parte-hartze-

aren eta elkarriketaren bidez, eskola elikatu egiten da eta etengabe eraldatuz eta eraikiz doa. Topaketa filosofiko edota teorikoak egin ohi dituzte, baina baita bestelakoak ere. Familiak eskolara joaten dira laguntzera: adibidez, eskolarako behar diren mahai edo bestelako altzariak egitera edo kontontzera, sukaldean aritzera, materiala prestatzera... azken batean, era bateko edo besteko ardurak hartzen dituzte komunitatearen barruan. “Arduraren kontua oso garrantzitsua da guretzat. Izan ere, gure esperientziaren oinarri filosofikoetarikoa bat da. Familien eta publikoa den horren arteko lankidetzaren nola bultzatu gogoeta egiten dugu etengabe. Familiak euren errentaren arabera kuota bat ordaintzen dute, baina horrez gain, aukera daukate lanaren bitartez, praktikak eginez edota tailer eta hitzaldietan parte hartuz eskolako partaide izateko, eta bide batez, loturak sendotzeko”.



Gianni Rodari 0-3 haur eskolaren kanpoko aldea.

Ezagutzaren autoeraikuntza eta harremanak, oinarri

Zer da umea eta nola osatzen da jakintza? Hirian hezkuntzari ematen zaion garrantzitik eskola barruko jarduerara salto eginez, galdera horren inguruko hausnarketan oinarritzen dute Reggio Emiliako haur-eskolek euren egunerokoa. Brunerren teoriari jarraiki, galdera horri ematen zaien erantzunek eragin politiko eta soziala izan dezakete. Izan ere, hark zioen bezala, pertsonen jakintza modu sozialean autoeraikitzen dutela sinetsiz gero, horrek eragin zuzena du eskola haute-mateko moduan. “Gukurte askoan eztabaidatu dugu gure ereduaren inguruan. Guk, hasteko, argi dugu umea izugarritzko gaitasunekin, sekulako potentzialitatearekin jaiotzen dela. 100 hizkuntzen teoriak dioen bezala, nahi adina hizkuntza ikasteko ahalmenarekin jaiotzen delako”. Haurra berezko gaitasunak dituen pertsona bezala haute-mateaz gainera, Brunerren teoriaren arabera, haurrak berak erakitzen du ezagutza eta jakintza, baldintza egokiak eskaintzen bazaizkio. Umeari buruzko irudi horrek iraultza bat eragin du Tedeschiren esanetan, bai heziketa ulertzeko moduari dagokionez eta baita hezitzailearen eta eskolaren paperari dagokionez ere.

Haurrak berez izugarritzko gaitasunak dituela eta jakintza autoeraikitzen duela kontuan hartzeaz gain, Brunerrek zioen moduan, giza izatearen beste alderdi batean ere jartzen dute arreta



Reggio Emiliako haur-eskolek: haurrek besteekin harremanak izateko duten premian, hau da, haurren sozializazio nahian. Lehenik eta behin, helduaren beharra duela uste dute, haurrak alboan behar duela beraz arduratuko den heldua. Baina haurren eta helduaren arteko harreman horretan bada oso kontuan izan beharreko gako bat Tedeschiren irudiko: “Helduak haurri hazten jarraitzeko gogoia izan dezan espazioa zabalik uzten dio ala heldua bera bilakatzen da mundu bakar haur horrentzat?”. Auzi horren inguruan teoria bat baino gehiago dauden arren, Reggio Emilian erreferentziatzko helduaz hitz egin baino

nahigo dute erreferentziatzko testuinguruaz hitz egitea, haurrentzat abegitsua, atsegina eta segurua izango den eremu bati buruz, hain juxtu. Eredu horren arabera, heldua testuinguru horretako parte izango da, baina erreferentziatzko testuingurua helduek ez ezik, haur-eskolako beste umeek, espazioak, objektuek, usainek, kolorek, materialek... ere osatuko dute. Malaguzziren esanak gogora ekarriz Tedeschik dioen moduan, helduak umearekin duen harremanaren oinarria haurri aurrera egiteko gogoia piztea izan behar da, eta ez umeari mundurako ateak ixtea. “Bestearekiko topaketan funtsezkoa da gure pasioari lekua

emate, baina besteari espazioak irekita utziz. Erreferentziazko testuinguruan heldua testuinguruaren parte egiten da. Heldua testuinguruan dago, espazio horretan ez dagoenean ere, hau da, helduak egoera batzuk sortzen ditu eta espazio horiek eta testuinguru horiek mantendu egiten dira helduak espazioa uzten duenean ere”. Hortaz, haurrak erreferentziazko testuinguruko elementu guztiak harremanean eta elkarreraginean egongo dira eta hori ere euren jakintzaren autoeraikuntzarako gako garrantzitsua izango da.

Bi oinarri horiek kontuan izanik — haurrak berezko gaitasunak dituelako jakintza autoerakitzen duela eta besteekin harremanetan egotea bilatzen duela— eraikitzen dute Reggio Emilian eguneroko jarduna. Talde-lana eta kalitatezko arreta indibidualizatua uztartzen saiatzen dira. Horretarako askatasuna da euren jardunaren giltzarrietako bat. Erreferentziazko testuingurua egoki landua eta osatua badago, haurrak gai izango dira bakarrik aritze-



Reggio Children nazioarteko gunea goran, eta Reggio Emilia hiriaren erdialdeko plaza bat behean.

ko eta euren ezagutza eraikiz joateko. Horrexegatik, Reggio Emiliako eskoletan jakintza ez dute gaika banatzen eta ez dute ordutegirik, ezta liburu magistralik ere. Ez daukate banakako mahairik, ez oholtza eta arbel estatikorik. Horren ordez, talde handitan, txikitan

nahiz indibidualki lan egiteko tokiak dituzte, txokoak eta tailerrak: erosketagunea, mozorroak eta antzokia, arte-tailerra, sukaldea, baratza... Haurrei nahi eran batetik bestera joaten utziz jarrera aktiboa eta arduratsua sustatzen saiatzen dira, eta hurrek euren erabakiak hartzeko gaitasuna lantzen dute. Jantokiaren adibidea jartzen du Tedeschik: haurrak lauzpabosnaka esertzen dira mahaian, eurek jarri eta jasotzen dute mahaia; janaria ere eurek aukeratzen dute eta nahi dutenetik nahi adina hartzen dute.

Espazioei sekulako garrantzia ematen diete Reggio Emiliako haur-eskoletan hurrek jakintza modu sozialean autoeraiki dezaten. Spaggiarik esplikaturako moduan, espazioak oso pentsatuta daude umeen arteko nahiz ume eta helduen arteko harremanak sustatzeko. Eredu ireki eta zabalak lehenesten dituzte, estetikoki atseginak, erakargarriak eta abegikorak. Horren adibide da bertako eskola guztietan



egon ohi den plaza: topagune publikoa da, adin guztietako haurrak elkar-tzen diren tokia, elkarrekin nahiz guraso, irakasle eta auzotarrekin harremanetan egoten diren lekua: “Hiriko enparantzen funtzio berbera betetzen du. Jendea elkartzen da bertan, ideiak partekatzen dira, eztabaidak gertatzen dira eta pertsona ezberdinen arteko topaketatik jakintza eta ezagutza berriak sortzen dira”. Kanpoko espazioek ere funtzio esanguratsua jokatzen dute Reggio Emiliako haurren heziketan, nola eskolako patioak, hala hiriko nahiz bestelako inguruneek. Haurrak, batetik, naturarekin kontaktuan daude—zuhaitzak, belazeak, adarrak, lurra, ura, landareak, barazkiak, fruituak...—, eta bestetik, auzoko nahiz hiriko gune ezberdinak ezagutzen dituzte eta beroietan parte hartzen dute.

Gardentasuna da espazioa egitura-tzean kontuan izaten duten beste ezaugarri bat. Reggio Emiliako haur-eskolako hormak gardenak dira eta edonork murrueen beste aldean egiten ari direna ikus dezake. “Haurrek beste-ak ikusiz asko ikasten dute, baina ez hori bakarrik, ikusten duten horretatik abiatuz ideia berriak sortzeko ere balio du gardentasun horrek”. Gainera, haurrak toki batetik bestera libreaki mugitzen direnez, paretaren beste aldean gertatzen ari dena ikusteak, zer egin edota nora jo erabakitzen lagun diezaiekete.

Helduak espazio horren egitura-ketan esku-hartzen du. Bere zeregina haurrari bideak irekitzea da, hala haurra inguruaz haratagoko mundu batera igaro ahalko baita eta datuaz haragoko errealitateak irudikatu ahalko baititu. Horretarako, argi-itzalekin, proiektzio desberdinekin, horizontalki nahiz bertikalki jarritako ispluekin, teknologia berriek eskaintzen dituz-

ten aukerekin... jokatzen dute. “Gure egitekoa da haurrari bere ikuspegia zabaltzea eta beste errealitate batzuk imajina ditzan bitartekoak eskaintzea. Nola zabaldu dezakegu haurrek momentu batean bizi duten esperientzia? Nola eman diezaiokegu jarraikortasuna haurra bere baitan eraikitzen hasi den historia horri? Galdera horiek une-oro presente izan behar ditugu, eta umeei prozesu horretan lagundu”. Eskolaren egitura arkitektonikoak berak ere horretan asko laguntzen du. Izan ere, espazio itxi eta irekiak dituzte, eskailerak, aldapak, solairu desberdinak... errealitate berberari hainbat tokitatik—goitik, behetik, albo batetik—begiratzeko guneak eskaintzen dizkie eskolak eta horrek ikuspegia zabaltzeko aukera emate die.

Aurrez prestatutako espazio eta giro horretan, haurrek egunero esperientzia eta bizipen desberdinak izaten dituzte. Euren kabuz jardunaz, bizipen horietatik ikasten dute. Ikaskuntza benetakoa izan dadin, norberak esperimintatu behar duela uste baitute Reggio Emilian, norberaren gorputzetik eta emozioetatik pasa behar dela teoriak dioena benetan jakintza bilaka dadin. “Haurra bere jakintza eraikiz doa, baldin eta horretarako bitarteko ego-

kiak baditu. Baliabideak taxuz aukeratu eta erabiltzen asmatzean dago hezitzailearen zeregina”.


Lehen Hezkuntzara jauzia

Heziketan aukera politiko eta etikoak egiteaz gainera, aurrera egingo bada arriskuak ere hartu egin behar direla argi dute Reggio Emilian. Eta arriskatu egin dira: orain dela sei urte urrats garrantzitsu bat egin zuten eta Lehen Hezkuntzan ere (6-11) orain arte 0-6 zikloan erabiltzen zuten pedagogia berberarekin hasi dira lanean: talde-lana eta umeak bere kabuz jakintza eraikitzeko duen gaitasuna oinarri hartuta egituratzen dute ikaskuntza, ikasgai-rik eta ordutegirik gabe, gela itxirik eta pupitretik gabe, ezagutzarako prozesua modu holistikoan bideratuz. “Bilgunea, negoziazioa, elkarriketa, harremanak, ideiak sortzea... hori guztia garrantzitsua da, baina beste zerbait ere erantsi geniezaioke horri; pentsamendu ekologiko edo sistemiko bat sortzea, Reggio Emiliatik haratago doana. Baina zein zentzutan sistemikoa? Harremanak harmonizatzen dituelako eta parteen arteko erlazioei balioa ematen dielako eta dena barne hartzen duelako: haurrak, heldua, baliabideak, eskola, hiria...”.



11. Hazi Hezi

haziera eta heziketarako
euskal aldizkaria



Urteko harpidetza
(lau aldizkari)
20 euro

Hik Hasi, hezkuntzari
garrantzia ematen
diogunon **komunitatea**

www.hikhasi.com



jesus mari mujika



ELKARRIZKETA

Jesus Mari Mujika, Etikako eta Filosofiako irakaslea

“Bizitzako graziak dastatzeko bideak jorratzen irakastea eta errealitateari nortasunez eta ausardiaz heltzeko balioak lantzea da heziketaren egitekoa”

Mundua, nahitaez, paradigma berri baten beharrean dagoen honetan, bizitza eta bizitzeko era ulertzeko zereginen hezkuntzak betetzen duen funtzioa giltzarria izan daitekeela dio Jesus Mari Mujikak (Aizarna, 1946). Deustuko Unibertsitatean eta Santo Tomas Lizeoan Etikako eta Filosofiako irakasle gisa ia 40 urtez izandako esperientziatik mintzo da. Argi du eskolaren zeregina zein den: belaunaldi berriak mundu hobe baterako heztea; baina zentzu utopiko pixka bat izan gabe ez daitekeela horrelakorik egin azpimarratzen du, "zentzu utopikoa diodanean, ez naiz utopia itxi horiez ari, baizik eta gaurko mundua alda daitekeela eta gizarte hobe bat posible dela sinesteaz". Horrexegatik, uste du eskolak haurra edo gaztea ez duela bideratu behar egungo gizarteko egituretara molda dadin, gizarte hori hobe egiteko nahi izan dezan baizik.



Ia 40 urtez Etikako eta Filosofiako irakasle izan zara. Zer-nolako esperientzia izan da?

Nire kasuan zorte izugarria izan da irakasle izatea. Nik ez dut sekula sufritu, eta asko disfrutatu dut. Ahalegindu ere egin naiz, baina gazteak nirekin izugarri ondo portatu dira. Orain, erretiroa hartuta, aitortu beharra daukat falta sumatzen dudala.

Dagoeneko erretiroa hartuta eta atzera begira jarrita, euskal hezkuntzaren zer-nolako erradiografia egingo zenuke?

Euskal Herriko esperientziaren ikuspuntutik, nik esango nuke eskolak ikasleek uste dutena baino garrantzi handiagoa duela beraien heziketan, baita irakasleek beraiek uste dutena baino handiagoa ere. Badakit orain LOMCE ezarri dela, baliabideak murrizten eta irakasleak gutxitzen ari direla... Eta badakit, diru gutxiago jartzenez, horrek zer ondorio izaten dituen ere: curriculumeko eskolak lehen bezalaxe emango dira, baina, gero, desagertzen joango dira horrez aparte hezkuntza-mailan egin daitezkeen gauzetarako zeuden baliabide berezi horiek. Hori horrela izanik ere, nik ez dut eskola horren gaizki ikusten. Hasteko, iruditzen zait hemengo eskola nahiko hurbil dagoela herriarengandik. Frankismoaren garaian, eta ondoren, gurasoen indarrez ikastolak sortzeak asko lagundu zuen horretan. Nik uste dut, gainera, orokorrean eskola ondo ikusita dagoela. Eta garrantzitsua da hori ere.

Ahulguneak ere baditu eskolak: nik oraindik ere gizarte mota honen esanetara jarriena ikusten dut. Krisian dagoen gure gizarte honetan krisia nagusiki ekonomikoa dela iruditzen zaigunez, gero eta beldur handiagoa diogu etorkizunari, eta hezkuntzaren xede bakar lanbide edo enplegu bat lortzeko ondo prestatzea bihurtu da pixkana. Horrek distortsioa eragin du eskolaren ikuspegian, hezkuntza manipulatu. Gizarte batean beldurra nagusitzen denean — eta gure gizarte honetan izugarritzko beldurra dago orain —, ez dira balio garrantzitsuenak garatzen, kontrako baizik; eta errealitate hori erraz balia dezake egungo gizarte merkantilizatuak. Merkatuak agintzen badu, merkatuak berak erabaki dezake eskolak sare merkantilista hori indartzen lagunduko duen jendea prestatzea izan behar duela helburu. Arrisku hori badaukagu, eta, gainera, iruditzen zait datozen urteetan ez dela gutxituko. Izan ere, guk oraindik ez dugu onartu nahi, baina garbi samar eduki behar genuke ez garela itzuliko hemen pasatu ditugun krisi aurreko 15-20 urte horietara, dirua erraz egin eta gero eta gehiago izango genuela pentsatzen genuen garaietara.

Ahuleziak aipatu ditut, baina aukerak ere ikusten dizkiot eskolari. Iruditzen zait, lehen baino (orain 20-30 urte baino) baliabide gehiago ditugula gaur eskolan; besterik da azken 3-4 urtean behera egin dugula eta gehiago egin dezakegula, zoritxarrez. Heziketaren garrantziaz ere —hezkuntzaz ari naiz, ez lanerako prestakuntzaz edo instrukzioaz— lehen baino kontzientzia handiagoa dagoela uste dut, eta bereziki iruditzen zait gero eta garbiago dakigula bai irakasleok eta baita gurasoek ere heziketa hori txikitatik hasita egin behar diogula lekua.

Entzun izan dizugu heziketaren garrantziaz ezin daitekeela hitz egin

jesus mari mujika

E

“Gizarte hobe bat egin daitekeen esperantza gutxi daukagu. Eta esperantza hori izan gabe, ezin egin daiteke eskolan heziketa itxurazkorik

”

“Austeritatea, inolako zalantzarik gabe, eskolan eta etxean landu beharreko balioa dela uste dut. Gutxiagorekin hobeto bizitzen ikasi beharra daukagu, ezinbestean

”

gizarte hobe baten esperantzarik ezean.

Nire ustez, gaur egun irakasleok dugun zailtasunik nagusia esperantza falta da. Gizarte hobe bat egin daitekeen esperantza gutxi daukagu. Eta esperantza hori izan gabe, ezin egin daiteke eskolan heziketa itxurazkorik. Mundu hobe baterantz egingo dugun esperantza gutxi daukagu, eta gizakiarengan ere gutxi sinesten dugu. Askoz errazagoa zaigu gizakiaren alderdi negargarriez konturatzea; baina gizakiak alderdi onak ere baditu. Uste dugu ustelkeria, engainua, gezurra... guztiz normalak direla gaurko gizartean. Baina kontuz! Mundu honetan ustelkeria ikaragarri dagoen arren, laguntzera dedikatzen den jendea ere izugarri dago. Berdin-berdin, hurrek badute norgehiagokarako joera, baina baita enpatiarakoa ere.

Heziketaren norabideari dagokionez, sarri irakasle asko nahastuta sentitzen garela iruditzen zait, eta ausardia apur bat falta zaigula. “Zer balio transmititu behar zaizkie haurrei? Eta nik, horretarako, zer segurantzia daukat?” galdetu ohi dugu sarri. Nik uste dut balio batzuekiko segurtasuna eduki behar genukeela eta horien berri eman behar geniekeela haurrei. Balio batzuk lantzea funtsezkoa da, mundu honek etorkizunik izango badu.

Eskolan ezinbestean transmititu beharreko balioen baten adibiderik jar dezakezu?

Austeritatea, hortxe adibide bat. Nik, inolako zalantzarik gabe, eskolan eta etxean landu beharreko balioa dela uste dut. Gutxiagorekin hobeto bizitzen ikasi beharra daukagu, ezinbestean, —ez naiz miseriaz ari, noski—. Eta hori haur eta gazteei esan egin behar diegu. Bestela, mundu honek ez dauka etorkizunik. Eta mundu honetan justiziak ez du lekurik izango. Baina, zer gertatzen da? Gure hau-



rrek eskolan zortzi-hamar urte pasa ditzaketela austeritatea hitza entzun eta irakurri ere egin gabe. Zer esan nahi duen ere jakin gabe. Zergatik? Bada, guk hitz eta kontzeptu horiek erabili ere ez ditugulako egiten. Haurrek horrelako kontzeptuen berri izan behar dute.

Zein da eskolaren funtzioa eta betebeharra gaurko gizartean?

Mundua, nahitaez, paradigma berri baten beharrean dago. Bizitzeko era eta bizitza ulertzeko era aldatu beharra daukagu mundu osoan, eta hori oso zaila da. Baina nola egin daiteke bidea? Hezkuntzan lan eginez. Badakit orain eskolaren gain botatzen dela zama guztia, eta eskolak egin dezakeena egin dezakeela; baina garbi eduki behar du eskolak bere zeregina: eskolaren funtzioa belau-naldi berriak mundu hobe baterako hezten saiatzea da. Zergatik da hori beharrezkoa? Arrazoi ekonomikoak, sozialak eta ekologikoak daude — mundu mailako justiziarri begiratu besterik ez dago—; baina, batez ere, arrazoi filosofikoak daude, eta nik horiek azpimarratu nahi ditut: gaurko munduan, indibiduazioa, hau da, norbera izatea, gero eta zailagoa da. Bakoitzak NOR izan behar du. Pertsonak NOR izateko eskubidea dute, eta haurrei lagundu egin behar zaie NOR izatera irits daitezen, hots, bakoitza norbera izan dadin. Hori, gaurko gizartean, oso zaila da. Izan ere, gaur egun daukagun informazio-eraso beldurgarri horrekin eta komunika-

bideek duten eraginarekin, masifikazioarako joera izugarria dugu. Horregatik, eskolak ahalegin berezia egin behar du haur bakoitzak norbera izatea lor dezan. Beraz, eskolaren egitekoa izugarri garrantzitsua da. Baina zentzu utopiko pixka bat izan gabe ez daitekeela horrelakorik egin azpimarratu behar da.

Zertaz ari zara hezkuntzan beharrezkoa den zentzu utopikoa aipatzean?

Zentzu utopikoa diodanean, ez naiz utopia itxi horiez ari, baizik eta gaurko mundua alda daitekeela eta gizarte hobe bat posible dela sinestez. Nik badakit mundu perfekturik ez dela posible, baina gauzak hobetu daitezke, eta zenbait alorretan hobetu ere egin dira. Adibidez, nik badakit gizonen eta emakumeen arteko berdintasunik ez dagoela oraindik, baina gaurko Euskal Herrian jaio edota orain dela bi belaunaldi jaio, izugarrizko aldea dago. Nola lortu da hori? Bada, batzuek gogotik lan eginez. Hortaz, egiten den lanaren fruituak segituan ikusten ez badira ere, aurrera egin behar dugu. Horregatik diot zentzu utopiko eta ilusio pixka bat izan gabe, eta bokazio apur bat izan gabe, eskolan ez daitekeela hezitzaile izan.

Gizarte hobe bat egiteko, beraz, eskola funtsezkoa da, zure ustez.

Modernitateak eskola gizartearen zerbitzura gehiago jarri du pertsonaren zerbitzura baino. Hori, hein batean, ulertzekoa da, eta gaur egun ere hori gertatzen da. Batez ere 12-13 urtetik aurrera, kezka nagusia zera da: gizarte honen egungo egiturara nola egokitzen naizen edota nola prestatzen naizen, gizarte honetan sarrera egokia izan dezadan, nire lekua egin dezadan. Ezinbestekoa da ikuspegi hori gainditzea. Izan ere, gizarterako prestatzea ona den arren, garrantzitsuena nortasuna izango duten ikas-



leak heztea da, gizarte hobe egitea helburu izango duten ikasleak heztea. Horregatik hitz egin behar da balioez eta eskolan horiek lantzeak duen garrantziaz.

Eskolak haurra edo gaztea ez du bideratu behar nagusiki egungo gizartearen egituretara molda dadin, gizarteratutakoan gizarte hori hobe egiteko nahia izan dezan baizik. Horrek ez du esan nahi lanerako ahalmen gutxiago izango duenik; aitzitik, gaitasunak lan-merkatuaren alorrera ezezik, beste arlo askotara ere bideratuko ditu.

Gaur egun dagoen langabezia-tasa kontuan hartuta, normala ere bada gazteek, gurasoek zein irakasleek

indarrak enplegurako prestatzera bideratzea.

Sinetsita gaude eskolak prestatu behar zaituela gizarte honetan enplegu egoki bat izan dezazun eta horrekin zure bizimodua irabaz dezazun. Baina, uste horren atzean, bada trampa bat: pentsatzen dugu pertsonoi nagusiki nortasuna gure lanbideak ematen digula. Bizibidea lanbideak ematen digu, hori hala da; baina, gaur egun, nortasuna eta zoriona ere lanbideak emango dizkigula pentsatzea faltsua da. Eta gaurko errealitateari erreparatuta, gero eta zailago izango da hori. Nik enpleguan gustura egoteak duen garrantzia ez dut ukatu nahi, baina gizakia ez du enpleguak bakarrik egiten, eta, gainera, badirudi gero

jesus mari mujika

E



“Gaur egun nortasuna eta zoriona lanbideak emango dizkigula pentsatzea faltsua da

”

“Eskolak haurra edo gaztea ez du bideratu behar nagusiki egungo gizartearen egituretara molda dadin, gizarteratutakoan gizarte hori hobea egiteko nahia izan dezan baizik

”

eta gutxiago izango dela horrela. Hori azaldu egin behar diegu haur eta gazteei.

Horrexegatik, hezkuntzak ez du soilik enplegura bideratuta egon behar. Horrek ez luke zentzurik. Zergatik? Hasteko, denontzat ez dagoelako enplegurik munduan —guk gaur egun dugun ikuspegiarekin behintzat ez, hau da, egunean 8 ordu lan eginez, 40 urtean lanbide beran—. Izan ere, teknikan aurrera egin ahala, enplegu mota horiek jende gutxiagorekin betez doaz. Baina horrek ez du esan nahi lana gutxituko denik. Beste hamaika lan mota egon daitezke gizarte honetan, enpleguaz apartekoak. Zenbat jende aritzen da lanean honetan eta hartan, laguntzen? Enpleguaren munduan normalizat jotzen da enplegu hori zenbat eta lehenago bukatu orduan eta hobe dela. Baina kontuan izan behar da gizakiak lana ere egin behar duela. Zeren, bizitza honetan, zailena ez aspertzea da, eta zeregin horretan lanak paper garrantzitsua jokatzen du. Eskolak haur eta gazteei bizitzan ez aspertzeko baliabideak soilik emango balizkie ere, ez litzateke gutxi.

Zer esan nahi duzu, eskolaren egitekoa bizitzarako heztea dela?

Noski. Enpleguak ez du zoriona ematen, eta hiritar izaten ere ez dizu nagusiki horrek irakatsiko. Orduan, zein litzateke eskolaren egitekoa? Edo heziketarena? Heziketa bizitzarako da, bizitzan zoriontsu izateko da. Eskola da bizitzako graziak dastatzeko bideak jorratzen irakastea eta, ge-

ro, bizitzaren errealitateari —bizitza gogorra ere bai baita— nortasunez eta ausardiaz heltzeko balioak eta kuraia lantzea.

Eskolak bere egitekoa pertsonak bizitzarako heztea dela argi duen heinean, haur bakoitzaren berezitasunak errespetatuz joan behar luke, bakoitzari bera izaten erakutsiz. Horregatik, haurrak ezin ditugu balioetsi orain arte ohikoak izan diren inteligentzia jakin batzuen arabera. Aitzitik, beste mila inteligentzia daude. Helburua haurrak hobeto bizitzeko baliabideak izatea da. Kultura, jakimina, libertatearen irrika eta ulermena sustatzen saiatzea. Baita balio moralak ere: enpatia, errespetua, elkarbizitza... Hori guztia zertarako landu, baina? Zoriontsuago izateko, askoz ere hobeto biziko zarelako, askoz ere maitatuagoa izango zarelako.

Heziketa humanizatzearen garrantziaz hitz egiten da. Zer baliabide izan ditzakete irakasleek horretarako?

Eskolaren egiteko izugarriaz lehen baino kontzientzia handiagoa dago. Gero eta argiago daukagu eskolak gaur erronka ikaragarria daukala. Hezi egin behar genukeela ere bai. Zer gertatzen da? Akaso gutxiegi sinesten dugula gure lanaren emaitzetan, emaitzak hezkuntzan ez baitira segituan ikusten. Era berean, uste dut oraindik errazegi epaitzen direla irakasleak: *“bori alfer butsa da”*, *“bori harroputz bat da”* edota *“bura tonto samarra da”*. Une honetan, alferkeriarako edo harrokeriarako joera izan dezake, baina ezin zaio etiketa hori jarri une zehatz batean horrela jokatzeagatik. Horregatik hitz egiten dut nik bokazio puntuaz. Irakaskuntza lanbide soiltzat hartuz gero, opor asko dituen enplegu seguru samartzat, sufrimendua dator berekin, eman nahi duzun hori ematen ez duzulako asmatzen askotan, edo, behinik behin, ez duzulako ikusten fruiturik segituan. Ez da erraza.



Hasteko, ilusio umila eduki behar dute irakasleek. Guk jakin behar dugu ahalegina egitea bera arrakasta dela, arrakasta ez dela lorpena bakarrik; hori gero etorriko da, edo ez. Horrez gain, funtsezkoa da irakasleen arteko elkarlana. Gainera, edozein irakasgai emanda ere, bizikidetzaz arduratu behar du irakasleak. Eta jakin behar du pertsona baten zorionerako garrantzitsuena besteekin tratatzen jakiten ikastea dela; horizontalki, berdinetik berdinerara. Adi egon behar du irakasleak, eskolan sufritzen nor egon daitezkeen jabetzeko eta gertatzen ari den horri modu profesionalean erantzuteko. Horrez guztiaz gain, garrantzitsua da sentimenduei tokia egitea ere. Sentimenduak kudeatzen ikastea da inteligentzia. Baina, horretarako, asko hitz eginarazi behar zaie. Jakin behar dugu sentimenduak ere landu daitezkeela; baina, horretarako, agertzen utzi behar zaie. Haurrei, bestalde, behin eta berriz esan behar

zaie gatazkak normalak direla gizakien artean, gero, gatazkak indarke-riarik gabe gainditzen ikas dezaten. Ikasgelan inor ez gutxieste da kontuan izan beharreko beste irizpide bat. Ikasle bat ezin daiteke gutxietsi, eta gozo tratatu behar da. Ikasleek garbi jakin behar dute ez direla gure arerioak. Horrexegatik, funtsezkoa da gazteak eskolan partaide egitea. Ez ikasgelan hitza eman eta haien parte-hartzea bideratuz soilik, baita eskolaren antolamenduan parte harraraziz ere.

Bestalde, esan beharra dago guk baditugula erraztasun batzuk gurasoek ez dituztenak: batetik, maite baditugu, gurasoei baino askoz ere errazagoa gertatuko zaigu haurrekiko distantzia egokia hartzea. Eta hurrengo hau ere esan behar dela uste dut: guk pazientzia handiagoa eduki dezakegu. Zergatik? Guk elkarrekin egiten dugulako heziketa-lan hori, ko-bratuz egiten dugulako, eta ordu jaki-

netan.

Haurra mundu hobe baterako hezteko egon daitezkeen arrazoi filosofikoen artean, gizakiak NOR izateko duen eskubidea aipatu duzu. Nola lantzen da haurraren indibiduaioa? Nola ikasten da norbera izaten?

Horretarako, ikasleei beren buruarekiko distantzia hartzen irakatsi behar zaie. Gaur egun, niri sekulako atentzia ematen dit, 16 urterekin norbaitek kolperik jo ez, eta esaten dizunean: “Ni horrelakoxea naiz, bada, alferra”. Beraz, onartua du alferra dela. Hori, ordea, ez da egia. Zuk, zure burua ezagutzeko, zure buruarekiko distantzia hartu behar duzu, ikusi distantzia hartuta bakarrik egiten baita ondo. Horrek zera esan nahi du: “Nik nire burua ezin dezaket onartu, besterik gabe”. Distantzia hartzeko, ordea, funtsezkoak dira besteak. Hasteko, gurasoak, eta gero, irakasleak. Irakasleak bakoitzari norbera izaten lagun-

jesus mari mujika

E

“Unibertsitatera iritzi kritikoarekin, kulturarekin eta jakinzaletasunarekin datorrenak aurrera egingo du, bizitzan bezalaxe”

“Eskolaren porrota totala izango da, haurrak kultura alferrikakoa duela esatera iristen bada”

du behar dio, eta, horretarako, bere buruarekiko distantzia hartzen. Behin distantzia hartuta, distantzia horretan sortzen dira giza balioak. Distantzia horretan sortzen da kontzientzia morala ere. Ezin da onartu haur batek “ni horrelakoa naiz” esatea. “Ez, ez, zu ez zara horrelakoa, zu pixkanaka egiten ari zara, zeure burua eraikitzen”.

Horrez aparte, identitatearen ikuspegia ere egoki lantzen saiatu behar du eskolak. Identitatea garrantzitsua da, baina identitatea ere ez da bakarra, eta garatzen joaten da. Adibidez, euskaldun garen aldetik dugun identitateaz hitz egin dezakegu, baina kontuz! “Ni euskaldun naiz, baina euskaldun bezala dudana identitateak ez nau artaldean sarrarazi behar. Ni euskalduna naiz ni neu izan ahal izateko”. Hori da libertatea. Hortaz, identitatearen garapenak ezin du itxia izan. Nik nire bandera eduki dezaket, baina ezin dut edozer egin banderaren izenean. Guk, Euskal Herrian, hamaika arrazoi historikoren-gatik, badaukagu arriskua identitatearen ikuspegi faltsuak edukitzeko. Eta identitatearen ikuspegi faltsua norberaren identitatearen ikuspegi faltsua da.

Norbera izaten ikasteko, bakoitzaren identitatea eraikitzeko eta libre izateko, funtsezkoa da, ordea, iritzi kritikoa garatzea. Zein da horretako bidea?

Gogoeta eta elkarrizketa dira iritzi kritikoa garatzeko bide nagusiak. Hor, izugarria da hizkuntzak eta hitzak hartzen duten garrantzia. Gizakiak asmatu duen gauzarik handiena da hizkuntza, bai eta hitza ere. Gogoeta hitzarekin bakarrik egiten da. Kontzeptuak argituz. Eta kontzeptuak nola argitzen dira? Kontzeptu horiei buruz hitz eginez, haurrari hitz egiten utziz, bururatzen zaiona esaten utziz, errespetuz entzunez... Elkarrizketa asko behar da eskolan. Zergatik? Gogoetara bultzatzen duelako



elkarrizketak. Baina, noski, horretarako beste konbentzimendu bat ere behar da: zalantzari lekua egitea, hain zuzen. Elkarrizketa bat egin eta gero han hitz egindakoari bueltak ematen hasten zarenean —“Nik hau erantzun diot, baina igual arrazoi zuen”—, orduantxe hartzen du garrantzia elkarrizketak. Bakoitzak kostatzen ahala kostatzen bereari eusten badio, aldiz, —“nik nirea badakit, seguru dakit, zuk ez duzu arrazoirik”—, ez dago tokirik elkarrizketarako. Eskolak elkarrizketan eta gogoetan egin behar du nagusiki lan. Eta zein da horretarako jarraibide nagusia? Ikasten ari zaren edo tratatzen ari zaren gai horrekiko interesa piztea.

Ez da erraza izaten, ordea, haurrengan zein gazteengan interesa eta jakinmina piztea.

Interesa sortu nahi bada, gai bat aurkezterakoan, gai horrek helburu nagusi bat izan behar du: ikaslearentzat bizitzarako baliagarri, interesgarri izatea, nahiz eta lanbidez ez den horretan jardungo; adibidez, matematika baliagarri zait, burua antolatzen laguntzen didalako, logika mota bat lantzen dudalako. Baina haurrak ematen zaion gai horretan interesa ikusi egin behar du. Irakasleok ezin dugu jardun urte guztia interes bakkarra notari begirakoa izango duen gai bat lantzen. Horretarako, zer egin daiteke? Gai guztiak besteekin duten lotura adierazten saiatu. Adibidez, ni biologiaren barruan gorputza nola

osatuta dagoen irakasten ari banaiz, hori hamaika arloekin lot dezaket. Fisikarekin bai, noski, baina baita arazo metafisikoekin ere. Stephen Hawking-ek eta beste hainbatek zer egiten dute, bada? Kosmologia gehiago egiten dute ia fisika baino. Selektibitatearen tranpa ere hor dago, baina aitzakia gisa ere erabiltzen da batzuetan. Beste kezka bat unibertsitatean nola moldatuko diren izan ohi da. Barka iezadazue, baina unibertsitatean iritzi kritikoarekin, kulturarekin eta jakinzaletasunarekin datorrenak aurrera egingo du, bizitzan bezalaxe.

Irakasle batek, azken batean, ikuspegi bat transmititzen du. Non dago hori iritzi kritikoa lantzearen eta doktrinatzaren arteko diferentzia?

Iritzi kritikoa lantzeko, garbi edukitzea behar da hezkuntza-proiektuan etikoki zeintzuk diren gutxienekoak. Adibidez, “gizarte honetan gehiegi kontsumitzea txarra da, ez delako posible denok guk bezainbeste kontsumitzea”, edo “tortura ezin daiteke inola ere onartu”, edo “indarkeria ez da ona”... Horrez gain, bizitza balioetsiko da, eta baita giza eskubideak ere. Gero, horiek guztiak zehazterakoan, gauza eztabaidagarriak izan daitezke. Adibidez, abortuaren lege baten aurrean, askotariko ikuspegiak egon daitezke. Hori dena haur eta gazteei esplikatu egin behar zaie, eta ondo azaldu behar zaie zer den etika. Giza eskubideez ari bagara, funtsezkoa da pentsatzeko askatasuna, bai eta pentsatzen duzun hori adierazteko askatasuna ere, jakinik horregatik ez duzula ondorio kaltegarririk izango.

Zer da doktrinatzea? “Hau horrela da. Egia hau da. Zuk ez duzute pentsatu behar, kontra egiten baduzu, kalteak izango dituzu”. Doktrinatu ez, baina ikuspegiak eman egin behar dira. Hau da horretarako metodoa: zuk, ezinbestean, haurra bide batean jarritzen duzu, baina, hor zalantzak sor-



tzen hasten direnean eta haurra galdarak egiten hasten zaizunean, beste ikuspegi batzuk ere badaudela adierazi behar diozu. Zabaldu egin behar diozu ikuspegiak, eta esan: “Nik hala pentsatzen dut, baina beste ikuspegi hauek ere badaude, eta nik horiek ezagutzen lagunduko dizut”. Eta materiala emango diozu, eta esango diozu garrantzitsua dela gai baten inguruko pentsaerak eta ideiak ezagutzeko, eta norberarenak ez bezalako iritzi eta hausnarketak irakurtzera bultzatuko duzu.

Badirudi gurasoen, irakasleen nahiz ikasleen artean matematikan, fisikan, zientzian eta informatikan emaitza onak lortzeak duela prestigioa; aldiz, ez dio axola filosofian, literaturan edota arteetan emaitza okerxeagoak lortuta ere. (“Zertarako balio dute, bada, irakasgai horiek?”)

Ez du batere balio norbaitek esa-

tea “Zertarako ikasi kultura klasikoak?”, eta hori zientzietakoek ere argi jakin behar dute. Nik badakit denak ezin daitezkeela kultura klasikoan espezializatu, baina Platon nor zen jakitea, edo gure zuzenbidea Erroman sortu zela jakitea, edo inperioaz egon diren ikuspegiak ezagutzeko... izango ez da, bada, garrantzitsua eta baliagarria? Edo, aizu, literatura zertarako jakin? Eskolaren porrota totala izango da, haurrak kultura alferrikakoa dela esatera iristen bada.

Eskolan, irakasleek gauza berbereri eman behar diete garrantzia. Kohereziaz jokatu behar dute. Sekula ez da beste baten gaia mespretxatu behar, hori ere gertatu izan baita. Gertatu izan da 12-16 urte artekoekin etikako eskoletan eskulanak egiten ari zirela ere. Zuk txiki-txikitatik haurrari buruan sartzen badiozu etika eta moralara goitik behera inposatutako kontuak direla eta batere baliorik ez dutela, gero zer kristo ari zara esaten ustelkeria eta lapurreta gaizki daudela? Gaizki dagoela esaten ari zarenean, balorazio moral bat ariko zara, bada, egiten? Eta balorazio moral bat egiteko irizpideak beharko dituzu, ezta? Eta irizpide horiek zibilak izan daitezkeen, filosofikoki arrazoitu egin beharko duzu, ezta? Batzuetan badirudi arrazoitzea txorakeria dela, hemen bakoitzak nahi duena pentsatzen duela, bakoitzak bere iritzia duela, baina pentsatzen ere ikasi egiten da.





LOMCEri ez, Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki

LOMCE, Lanbide Heziketan

LOMCEk Lanbide Heziketaren kalitatea arriskuan jar dezake, zentroen nahiz sindikatuen arabera

Mailaka hasi da ezartzen LOMCE. Lehen Hezkuntzako lehen, hirugarren eta bosgarren mailetan eta Lanbide Heziketan hasi dira aplikatzen. Aurtan ez dago aldaketarik DBHn eta Batxilergoan. Lehen Hezkuntzako aldaketak nola, Lanbide Heziketakoak ere antzeratsu iritsi dira: tantaka eta egin beharreko erreforma guztien informazio argirik gabe. Funtsean, beraz, aurtengo ikasturtean bederen, aldaketa handirik eragin gabe ezarri da LOMCE Lanbide Heziketan ere. Hala ere, hainbat eremutan kezkatuta daude Espainiako Hezkuntza ministroak diseinaturiko lege organikoa erabat aplikatzen denean Lanbide Heziketaren kalitatean eta ikasleengan izan ditzakeen ondorioen inguruan.

LOMCEk bi aldaketa nagusi planteatzen ditu Lanbide Heziketarako: batetik, Oinarrizko Lanbide Heziketa sortzea, orain arteko CIP edo PCPIa ordezkatzeko lukeena eta DBHn ezinean dabilzan ikasleak hartuko lituzkeena; eta bestetik, Lanbide Heziketaren maila guztietan —oinarrizkoan, erdi mailakoan nahiz goi mailakoan— eredu duala ezartzea, hau da, ohiko eskolako saioak enpresetan egingo den jarduerara praktikoarekin uztartzea.

Aldaketa horiek ekarriko dituzten



ondorioen irakurketa egin aurretik, Lanbide Heziketaren testuingurua aztertzea komeni dela diote Afrika Jimenez eta Elvira Unanue STEE-EILAS sindikatuko kideek, aldaketok zuzenean eragiten baitiote DBHko jardunari. Lanbide Heziketa, printzipioz, derrigorrezko zikloaren ondoko heziketa da. Orain arte Erdi Mailako Lanbide Heziketara sartzeko DBH 4 gainditzea beharrezkoa zen; Goi Mailakoa egiteko berriz, Batxilergoa gainditua izatea.

LOMCEk zer aldaketa ekarriko du? Erdi Mailako zikloa egin ahal izateko, DBH 4. maila osteko errebalida gainditu beharko dela. Bi motatako errebalidak egingo dira: bat Batxilergo zuzendua eta bestea Lanbide Heziketara. Horrek esan nahi du DBH ere aldatu egingo dela; bi ziklotan banatuko da: lehen zikloa 1. 2. eta 3. DBHk osatuko dute, eta bigarren zikloa 4. DBHk soilik. “Aukeraketa aurreratu egiten da. 3. DBHn jada, zer matematika mota egin erabaki beharko dute eta 4. mailan zein DBH mota egin, eta azken



Afrika Jimenez eta Elvira Unanue, STEE-EILAS sindikatuko kideak.

maila hori erabat errebalida prestatze-
ra bideratuko da". Hortaz, sindikatuko
kideek kritika egiten dute arrisku itze-
la dagoela 3. eta 4. DBH ikasleen gal-
bahe bilakatzeko, ikasle "onak" eta
"txarrak" bereiziz, batzuk Batxilergora
eta beste batzuk Lanbide Heziketara
bideratuz. Gaur gaurkoz, ikasleen
%25 inguruk hautatzen dute Erdi Mai-
lako Lanbide Heziketa eta % 75 ingu-
rur Batxilergoa.

LOMCEk, formari dagokionez,
orain arteko Lanbide Heziketa askorik
aldatuko ez badu ere, formazioaren
kalitatea arriskuan jar dezakeela uste
du Julen Elgeta HETEL Heziketa Tek-
nikoko lehendakariak. Bere esanetan,
Oinarrizko Lanbide Heziketa eta tre-
bakuntza duala ez dira berriak gurean,
baina orain arte erakutsi izan duten
eraginkortasuna zalantzan egon dai-
teke LOMCEk dioena aplikatuz gero.

Oinarrizko Lanbide Heziketa: eskola- porrotaren mozorro?

Lanbide Heziketan, LOMCErekin
beste maila bat jarri da martxan: oina-
rrizkoa. DBHn ezinean ari diren ikas-
leak bidaltzen dituzte hara. Orain arte,
Lanbide Hastapeneko Programetara
(CIP eta PCPI) igortzen zituzten. Zein
da orduan aldea? Hastapen eskoletara

16 urtetik gorakoak bideratzen zituz-
ten, eta Lanbide Heziketa berrira 15 ur-
tetik gorakoak. Hortaz, ikasleek Oina-
rrizko Lanbide Heziketara sartzeko
bete beharreko baldintza izango da
DBHko lehen zikloa kurtsatua izatea
eta 3. maila gainditu gabe. "15 urtere-
kin salbuespen bezala hartuko litzate-
ke oinarrizko Lanbide Heziketara sar-
tzea, baina badakigu salbuespenekin
zer gertatzen den. Gure beldurra da jo-
era hori orokortzea eta Oinarrizko
Lanbide Heziketa 'ikasle txarren' zaku
bilakatzeara".

Nafarroan jada martxan da Oina-
rrizko Lanbide Heziketak dakarren al-
daketa. Araban, Bizkaian eta Gipuz-
koan ordezko formula bat taxutu du
Jaurlaritzak: Prestakuntza iragankor
integratuko programak. Ikasturte hon-
etan bederen, ez da aplikatuko LOM-
CE, nahiz eta sindikatuek kritikatu
gauza bera direla.

Elgetaren ustez, oster, LOMCEk
dakarren aldaketa nagusia ziklo bate-
tik bestera automatiko igarotzeko
ematen duen aukera da. Izan ere,
orain arte DBHko titulua beharrezkoa
zen Erdi Mailakora Lanbide Heziketa
egiteko eta Batxilergoko titulua Goi
Mailakora Lanbide Heziketarako. Ti-
tularik ezean, Oinarrizko Lanbide He-

ziketatik Erdi Mailako pasatzeko, edo
ta Erdi Mailakotik Goi Mailako igaro-
tzeko, sarbide proba bat egin behar
izaten zen. LOMCErekin, ordea, ziklo
batetik besterako igarobidea automa-
tikoa izango da. Oinarrizko Lanbide
Heziketa kurtsatua izanez gero Erdi
Mailara pasatzeko aukera izango dute
ikasleek, DBHko tituluaren beharrik
gabe eta inolako probarik igaro behar-
rik gabe. Eta gauza bera gertatuko da
Erdi Mailakotik Goi Mailako Lanbide
Heziketarako igarobidearekin ere.
"Hortaz, nor saiatuko da DBH amai-
tzen? Eta nork egingo du Batxilergoa?
Ziklo batetik bestera pasatzeko kur-
tsoak gainditzea soilik nahikoa bada,
bide hori hartuko dute gehienek. Eta
gure kezka da horrek nola eragingo
ote dion orain arteko gure formazioa-
ren kalitateari, ikasleak nola etorriko
ote diren prestatuta Erdi eta Goi Maila-
ko zikloetara, eta ea gure inguruko en-
presa industrialetan lan egiteko ondo
formatuta aterako ote diren ikasleak".

Emaitzak hobetu eta ikasleak bi-
kaintasunera bidean jartzeko xedez
eta eskola-porroteko tasa altuari aurre
egiteko helburuz jarri zuen martxan
Espainiako Gobernuak hezkuntza
erreforma. Eta hain zuzen ere, Jimene-
zek eta Unanuek salatzen dute Oina-
rrizko Lanbide Heziketaren bidez
"ikasle txarrak" paretik kenduta emai-
tza horiek mozorrotu nahi izatea.
"LOMCEren ondotik zentro bakoitzak
lortzen dituen emaitzei erreparatuko
zaienez, sekulako presioa izango dute
ikastetxeek emaitza onak lortzeko.
Hortaz, gure ustez, izugarriko arris-
kua egongo da ezinean dabiltzan ikas-
leak Oinarrizko Lanbide Heziketara
bideratzeko. Izan ere, horiek ez dute
konputatuko zentroaren emaitzetan.
Bide beretik, eskola-porrotari dagoz-
kion datuak ere urardotu egin ahalko
litzukete Espainiako Gobernuak". Sa-
laketa horrekin bat egiten du Elgetak
ere. Lanbide Heziketan ezarriko den
aldaketa, estatistikak mozorrotzeko
eta eskola-porrota ezkutatzeko hartu-
tako neurria dela dio.

Oinarrizko Lanbide Heziketa egin duten ikasleak zuzenean Erdi Mailako Heziketara pasa ahal izateak ekar dezakeen “maila eta kalitate jaitsierari” aurre egiteko irtenbide bat topatzen ari direla azaldu du Elgetak. Oinarrizkotik Erdi Mailara pasatzen diren ikasleak ziklo egokitu batera igarotzea ari dira planteatzen. Zein izango litzateke ziklo horren berezitasuna? Konpetentzia tekniko gutxiago, hau da, tailer ordu gutxiago eta zeharkako konpetentzia gehiago (matematika, etab.) izango lituzketela.

Lanbide Heziketa duala, formazioa enpresen zerbitzura?

LOMCEn bertan forma zehatzik ematen ez bazaio ere eta oraindik garatu gabe badago ere (ikasturte hone-tan zehar argibide gehiago izatea espero da), legearen ardatzetako bat Lanbide Heziketa duala izango dela zehazten da. Horrek esan nahi du ikasketen zati bat ikastetxean egingo dela eta beste zati bat enpresetan. Zein da aldaketa nagusia? Zikloen eskaintzan ikastetxearen eta enpresaren artean adostuko dela eta baita, hein batean, formazio hori eskainiko duten irakasleak ere.

Baina formazio duala ere ez da berria gurean. Orain dela 30 urtetik egiten dituzte Lanbide Heziketako ikasleek praktikak enpresetan, 2. ikasturtean 3 hilabetez. Orain dela 3 urte ordea, Lanbide Heziketa duala martxan jartzen hasi ziren. Lehen urte hartan 100 ikaslek hartu zuten parte, iaz 200ek eta aurten 400 ari dira formazio dualarekin. Ikasle horiek lehen ikasturtea, orain arte bezala, “normal”, egiten dute ikastetxean. Lehen maila amaitzean, baina, ekain horretatik hurrengo urteko ekainera arte, ikasle horiei kontratu bat egiten diete enpresek, ikastetxeko jarduera eta enpresakoa uztartzeko. Elgetak dio HETELen pozik daudela modalitate horrekin: “Ikasleek zuzenean enpresako egunerokoan parte har dezakete, soldata bat jasotzen dute, eta gainera, ikasle horien



Julen Elgeta, HETELeko lehendakaria.

%60ri, Lanbide Heziketa amaitutakoan kontratua luzatzen diete”. Epe motzean, 1.000 ikasleri formazio mota hori eskaintzea dute xede eta bide horretan lanean dihardute.

Sindikatuak ez dira iritzi bereko. Formazio dualarekin, Lanbide Heziketaren egitura eta kontrola goitik behera aldatu daitekeela eta hezkuntza eremu hori erabat enpresen interes eta formazio beharren zerbitzura gera daitekeela kritikatzan dute: “Arrisku-tua iruditzen zaigu Lanbide Heziketa guztia enpresen esanetara geratzea, legeak aukera emango baitie enpresei formazioaren zati bat nolakoa izango den eta norik emango duen erabakitzeke”. Hezkuntza erabat merkantilizatu eta instrumentalizatu den beldur dira Jimenez eta Unanue. Lanbide Heziketako zikloak izan arren, pertsonaren heziketa integralean jarri behar dela fokua diote.

LOMCEk Lanbide Heziketaren kalitatea lermatuko duen arduratuta daude STEE-EILAS sindikatuko kideak. Ez dute begi onez ikusten ikasleak enpresa jakin baten momentu zehatz batean dituen beharretarako prestatzea, behar horiek aldatzean ikasleak baliabiderik gabe geratzeko arriskuan izango baitira. “Gaur egunean gauzak dauden bezala, ez zaigu ondo iruditzen enpresei botere handiegia ematea”. Gainera, hezkuntzak eman beharko lituzkeen beste jakintza eta balio batzuk ase gabe geratzen direla uste dute; hala nola, elkarbizitza, berdintasuna, inklusioa... “LOMCEk ikaslea etorkizuneko langile gisa ikusten du eta prestatu nahi du gizarteari ahalik eta hobekien erantzuteko. Baina alderdi humanoa alde batera uzten du, eta jada ez da hitz egiten aukera berdintasunaz, ikaslea partaide izateaz, elkarbizitaz... Horiek legean aipatu ere ez dira egiten. Eta gure ustez ezer baino lehen argi izan behar genuke ikasleak pertsonak direla”.

2015eko udazkeneko hauteskundeetan zain, LOMCE bertan behera geratuko den itxaropenaz dago hezkuntza komunitateko jende asko, “baina hemen urte batzuk daramatzagunok ezin gara horretaz fidatu eta geroak zer ekarriko digun zain egon”. Gobernu aldaketa bakoitzean Hezkuntza Legea aldatzen aritzea “lotsagarria” dela irizten dute sindikatuko kideek eta hezkuntza arloko akordio zabal bat aldarrikatzen dute, aginteak batzuk edo besteak egon arren, ukitu ezingo litza-tekeena.



argia

ikus-entzunezkoen
EKOIZPENAK



Komunikazio ikuspegi orokorra, iraunkorra eta lankidetzan oinarritua

- Zuzeneko emisioak
- Ekitaldien grabazioak
- Promozio bideoak
- Dokumentalak
- Itzulpenak eta azpitulazioak...

ARGIAko webgunearen eta sare sozialen bidez zabalduko ditugu lanak

GURE AUDIENTZIA **ZURE ESKU**

Gure ezagutza eta gaitasun osoa,
profesionaltasunez eta prezio onean

10 urteko esperientzia bideogintzan
eta 1.200 bideo baino gehiago ekoitziak

Informazio gehiago: 943 37 15 45 · ekoizpenak@argia.eus

Antzerkhizkuntza proiektua

Nola susper daiteke euskara antzerkiaren bidez?



Garikoitz LASA

ANTZERKHIZKUNTZAKO KOORDINATZAILEA

Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasle askok hainbat zailtasun dituzte euskaraz egunerokoan lasai hitz egiteko. Alde batetik, erdaldunak dira etxe askotan, eta beste hizkuntza batzuetan mintzatzen dira; eta, bestetik, euskara jaso ikasten dute eskolan bertan, idazle eta entzule dira gehienbat, denbora gutxi dute mintzapraktikarako, eta, normalean, esparru formal baten barruan aritzen dira. Horren guztiaren eraginez, euskaraz mintzatzeko beldur dira, lotsa dute, segurtasun falta sentitzen dute, eta erdarara jotzen dute sarritan. Euskara ez dute lasaitasunarekin lotzen, ez dute tresna erraz, goxo eta edertzat; batzuentzat erronka da; besteentzat, nahi ezkutua, edota ukatzen duten zer bait.



Antzerkiak eremu horiek hautsi egiten ditu, eta mintzapraktikan oinarritzen da. Euskara tresna dugunez, ikasleek ez dute egokitasunean pentsatzen antzezterakoan, egin behar dutenagatik nahiko hunkituta daudelako. Antzerkia egiteak eta euskaraz egiteak badute antzekotasunik gure eskoletako hainbat ikaslerentzat: biak zail egiten zaizkie, eta ez dute ez bata ez bestea praktikatzeko erraztasunik, ez eta ohiturarik ere. Beraz, egitean lotsatu egiten dira, eta segurtasun-falta eta lotsa agertzen dituzte. Beldurrak eta lotsak *Antzerkhizkuntza* proiektuaren egunerokotasunaren parte direnez, ikuspegi konstruktibista batetik abiatuko gara; bako-

tzari berari dagokion neurria eskatuko diogu, eta begirunea sustatuko dugu mugen aurrean, taldean txantxak eta botere-jokoak baztertuta. Ikasle bakoitzak ahal duen bezala egingo eta hitz egingo du. Askotan, euskara tresnatzat hartu eta zorroztu nahian, gogo biziagoz ekiten diote euskarari.

Bestaldetik, gidoiak idaztea edo buruz ikastea egiturak eta hiztegia aberasteko tresna ere badira.

Giro jakin bat eraiki behar dugu taldean horretarako:

1. Lehenik eta behin, gure intentzioa azaltzen dugu, hau da: hizkuntza-normalizazioaren parte garelara adierazten diegu, eta euskarari lotzen diogu gure eguneroko ekintza; beraz,

ikasleak hasieratik egoki kokatzen dira.

2. Bigarrenik, euskara ez dugu arautzat planteatzen, tresnatzat baizik, haientzat onuragarria den tresnatzat, halaxe baita bai Euskal Herrian erlazionatzeko, bai haien geroan bikotekidearekin erlazionatzeko, bai seme-alabak hezteko edo bai lanerako ere.

3. Hirugarrenik, euskararen jabetza aldarrikatzen dugu. Euskara norberarena delako, jada asko ikasi dutelako, eta, erabiltzen ez badute, ahaztu egingo zaielako eta berea den zer bait galduko dutelako, aukera bat galtzen den bezala. Haiek dira euskara, eta euskara maitatzea beren burua maitatzea da. Aniztasunari buruz ere hitz egiten diegu, eta, aniztasun hori posible izateko, kultura eta hizkuntza ezagutu behar dituzte, koloretako mundu bat posible delako, desberdintasunak ederrak direlako.

4. Laugarrenik, euskara modan dagoenez, gaur egungo errealitatean kokatzen ditugu. Gaur egun, 40 urtetik beherakook euskaraz ikasi dugu, eta euskaraz bizi gara. Bilbon ere, gero eta talde gehiago ikusten ditugu gauean euskaraz, ogia erosten euskaraz, edo kirolean euskaraz. Euskaratik at geratzen dena bere errealitateetik at geratuko da. Euskararako joera dago, modan dago, eta euskara gora doa. Ikuspuntu horretatik abiatuta, bere buruari euskaraz hitz egitea ukatzen diona atzean geratuko da. Euskaldunok ez garelako ghetto bat, ideia soziopolitiko bat edukita euskaraz bizi garenak baizik. Gaur egun, euskara ez dugu soilik mitologiarekin edo historiarekin lotzen; euskara musika-erritmo modernoekin edota informatikarekin lotzen dugu, eta, oro har, gaur egungo tresna modernoa da.



5. Eta, bosgarrenik, irakasle-lanean oso tematiak eta maitagarriak gara. Gaztelaniaz esaten dutena euskarara itzul dezaten animatzen ditugu, eta, hala egiten dutenean, zoriondu egiten ditugu, eta eskerrak ematen dizkiegu, gaitasunaren arabera egin duten esfortzu handi, ertain edo txiki-gatik.

BALIOAK LANTZEA BALIABIDE GISA **Norberaren gaitasunak**

Eskolan, hainbat eduki ikasi eta barneratu behar dira; lagunak egiten ditugu eskolan, eta arazo pertsonalak islatzen ditugu; maisu eta andereñoak erreferentziatzat hartuta, hamaika ikasketa jasotzen ditugu, pertsona izateko eta profesionalizatzeko bidean. Etxean egiten den lana da garrantzitsuena, heziketa eta euskarri emozionalak jasotzen ditugulako, ezinbesteko beharrak asetzeaz gain. Beraz, pentsa genezake eskolaren eta etxeko arteko lan koordinatuak pertsona bete eta orekatuak ekarriko lituzkeela emaitzat. Eta halaxe da

kasu batzuetan.

Egia da, era berean, eskola bukatutakoan hainbat zailtasun pertsonalen aurrean ikusten dugula geure burua eta horietako askorentzat antzerkia izan daitekeela erantzuna. Adibidez:

- Publiko baten aurrean gure ideiak azaltzeko, txosten bat aurkezteko edo akordioetara heltzeko gaitasuna.

- Gure sentimenduak ulertzeko eta era egokian komunikatzeko gaitasuna.

- Hainbat egoerak eragiten digun urduritasunari aurre egiteko gaitasuna.

- Bakardadearen aurrean taldearen laguntza sentitzeko eta taldeari laguntzeko gaitasuna.

- Gure gorputza ezagutzeko eta berarekin komunikatzeko gaitasuna.

- Garapenaren prozesuan geure burua aztertuz zailtasunak, beldurrak, bertuteak, eta, azken finean, aukerak azaltzeko gaitasuna, horiek guztiak geure buruari ezkutatu beharrean.



Gaitasun teknikoak

Gaitasun hauek teknikoak direla diogu, teorikoki deskribatuta daudelako eta teknika zehatz bat dutelako.

Komunikazio-eredua; oldarkortasuna, asertibotasuna eta pasibotasuna; berrelikadura edo *feedback*-a; botere-erlazioak; taldeko entzumen, entzute aktiboa eta enpatia; gatazkak aurreikustea eta kudeatzea; erfortzu baikorra, ezkorra eta axolagabetasuna; hitzekoa ez den komunikazioa; kritikak nola egin; bulkaden kontrola eta norberaren mugak; NI mezua eta ZU mezua; zarata psikologikoak; taldeko erabakiak hartzea; autoestimua edota norberaren beldurak aztertzea eta kudeatzea... Norberak etxean eta gizartean ikasi eta erabili beharreko baliabideak dira horiek guztiak.

Antzerkhizkuntzan, teknika horiek azalduko ditugu, teoriaren ikuspegitik eta antzerkiaren bidez; antzerkia ikasten dugun bitartean, teknika horiek praktikan jarriko ditugu. Bizipenetatik ikasten dena hobeto ikasten delako

Taldeko gaitasunak

Irakasleok berehala antzematen dugu taldearen izaera orokorra: taldea berritsua, langilea, zatitua, batua

edo motibatua den. *Antzerkhizkuntzan*, taldea egunero lantzen dugu, taldea ezinbestekoa baita antzerkian. Antzerkia egiteko, guztiok egon behar dugu adi, eta taldean koordinatuta lan egin behar dugu. Ez dago antzerki dezente bat prestatzerik, elkarrekin eta elkarri lagunduz ez bada. Agertokian gaudenean, inoiz baino elkarren behar handiagoa izan ohi dugu. Gainera, publikoak beldurra ematen digunez, horrek ere batu egiten gaitu, eta, elkarrekin lotsa pasatzen dugunez, horrek ere batu egiten gaitu, adrenalinaz beteriko esperientziak ere batu egiten gaituztelako.

Gure lanak asmo sendo bat dauka. Talde-lanaren beharra azaltzen dugu, eta taldean egiteko ariketak proposatzen dizkiegu; elkarlana sustatzen dugu, eta banakako jarrerak saihesten ditugu, taldearen entzumen landuz, lan kooperatiboa proposatuz eta lehiakortasunaren ondorio latzak eztabaidan jarritz. Talde-lana, beraz, metodologia aktibo baten bidez daramagu aurrera: sentimenduak landuz, bizipenak sustatuz eta hausnarketarekin bilduz. Etengabe lantzen dugu urte osoan, baina hiru une nabarmendu behar dira:

1. hiru hilekoa: ariketa dibertigarriak egiten ditugu, eta antzerkia eta

giza baliabideak lantzen ditugu, taldea ezagutzen dugun bitartean eta ikasleek beren burua eta taldea hobeto ezagutzen duten bitartean.

2. hiru hilekoa: antzerki bat eraikitzen hasiko gara; aurrean arbel zuri bat dugularik, ideiez, pertsonaiez eta argudioz beteko dugu. Horretarako, guztion sormena, pazientzia eta talde-baliabide guztiak erabiltzen ditugu.

3. hiru hilekoa: antzerkia entsetzen dugu, eta taldea inoiz baino batua eta elkartuago sentitzen dugu; azkenik, talde-esperientzia kitzikagarri bat izango dugu amaierako antzezpenean.

ZER DA ANTZERKHIZKUNTZA PROIEKTUA?

Gure eskoletan eta baita curriculumaren barruan ere antzerkiaren hizkuntza zabaldu nahi duen ekintza didaktikoa da, ikasleen gaitasun pertsonalak eta euskararen erabilera suspertzea helburu duena.

Antzerkhizkuntza proiektua aurrera eramaten dugunok honako ideia hauek ditugu buruan:

- Antzerkia hizkuntza bat dela ulertzen dugu, bere hiztegi, arau eta gramatikarekin.
- Edonor hel daiteke antzerkiaren hizkuntzan komunikatzera.
- Hizkuntza guztiak bezala, ikasi egin behar da, gustura mintzatzeko.
- Beste hizkuntzetan ez bezala, antzerkiak garapen pertsonala eskatzen du ezinbestean.
- Antzerkia tresna paregabea da talde-dinamika garatzeko.
- Hizkuntza honetan mintzatzeko diren emaile eta hartzaileek zirrara sentitzen dute.





Aurten egin dugun lana azken 4 urteko ikerketaren eta esperientziaren hondarra izan da. Antzerkhizkuntza proiektuaren hastapenetan, gehigarri metodologiko erakargarri bat izan nahi genuen hizkuntzaren normalizazioan. Horretan ibili gara gizarte-zientzietan dugun esperientziaz baliatuz, eta, aurten, gure programazioa eraldatu egin dugu, gure hiru zutabeak erlazionatuta eta giza baliabideen bidez zuzena hartuta.

NORI ZUZENTZEN ZAIE PROIEKTUA?

Lehen Hezkuntzako 4, 5 eta 6. mailetako ikasleei eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei. Adin bakoitzak bere zehaztasun ebolutiboak dituzenez, programazioa taldearen adin eta ezaugarriei egokituko zaie; izan ere, Lehen Hezkuntzako metodologia askoz ere ludikoagoa izango da, eta, Bigarren Hezkuntzan, arte eszenikoaren hizkuntza formalean murgilduko dira.

Batik bat honako gaitasun hauek landuko lirateke Lehen Hezkuntzako ikasleekin: sormena, irudimena, errealitate-printzipioa, lan baten iraunkortasuna, kontzentrazio-gaitasuna, taldearen garrantziaz jabetzeko gaitasuna, etab.

Bigarren Hezkuntzako ikasleekin landutako gaitasunen artean, hauek ditugu: gure burua ezagutzeko (beldurrak, lotsak, gaitasunak eta zailtasunak); gatazkak lantzea, bai ikasleen arteko gatazkak eta bai norberak bere buruarekin eta gizartearekin dituenak; gizarte-gaitasunak lantzea; sentimenduak era egokian azaltzen ikastea, etab.

Proiektu hau ez zaie artistei zuzentzen, ikasle zoragarri arrunteei bai-

zik; beraz, ikasturtean zehar antzezlan potolo bat egin daiteke, baina ikasleak ez dira egongo behartuta antzezlanean parte hartzera, eta ebaluazioan ez da kontuan hartuko parte-hartze hori. Izan ere, antzezlanen kopurua, iraupena eta ezaugarriak ikasgelaren ezaugarrietara moldatuko dira; adibidez, zine-proiektu txikiak egin daitezke talde batzuetan. Gelan egindako lanak, jarrerak eta ahaleginak izango dute garrantzia, eta horrek definituko du bukaerako etekin artistikoa.

ZERGATIK CURRICULUMAREN BARRUAN?

Lanean daramagun urte hauetan, maiz egin digute galdera hori. Badirudi antzerkiaren esparrua eskola osteko ekintzetan kokatu dugula, edo hezkuntza ez-formalean. Guk, aldiz, antzerkia ikaslearen eguneroko ikasgaien artean ikusten dugu, eta frogatu dugu hezkuntza formaletik abiatuta lortzen diren helburuak eta jarrerak ezin hobeak direla, ikasketa horiek borondatezkoak ez direnez, bakoitzak bere etekinak ateratzen dituelako: lotsatiek aurre egin behar diete beren beldurrei, eta bulkadak kontrolatzeko zailtasunak dituztenek taldera moldatu behar dute.

Egia da antzerkiaren bidez ikastetxeetan ikasleei ohikoak ez diren tresnak irakasten dizkiegula bizitzarako, eta egia da, baita ere, gaurko gizartean oso baliagarri gertatuko zaizkiela antzerki-eskoletan ikasitakoak.

Eskola barruko orduetan oso gai atsegina da Antzerkhizkuntza, baina, gure helburuak eta metodologia oso serioak direnez, eskola osteko ekintza bezala gogorregia egiten zaie.

PROGRAMAZIOA MALGUA DA?

Beharko izan malgua! Ikastetxe bakoitzeko proiektua desberdina da, maila eta adin bakoitza desberdina da, eta ikasle bakoitza ere desberdina da. Proiektu honen bokazioa ikastetxe bakoitzeko egunerokotasunaren parte izatea da, eta, berez, antzerki-eskola bakoitzak bat etorri behar du bertan lan egiten duten profesionalen filosofiarekin. Horretarako, ezinbestekoa da koordinazio-lana hasieratik bukatu arte etengabea izatea, proiektuak eskolaren formak har ditzan. Halaber, ikasle bakoitzaren beharrak askotarikoak direnez, antzerki-irakasle bakoitzak ikasle bakoitzaren jarripena egingo du, eta gidoiak ikastalde bakoitzak eta ikasle bakoitzak dituen gaitasun, zailtasun eta ezaugarrien arabera egingo dira.



20 urteotako bidelagunekin hasi ditu Hik Hasik ospakizunak

1994an hik hasi egitasmoa sortu eta eskuotan duzun aldizkari hau pentsatu eta sortu zuten hainbat irakasle, bidean elkartu diren beste asko eta gaur egun Hik Hasi egitasmo pedagogikoaren parte diren kide ugari elkartu ziren iragan azaroaren 8an Zaurutzen, Hik Hasi-ren 20. urteurrena ospatzeko, falta direnak gogoratu ibilbideari errepaso bat emateko eta batik bat aurrera begira jartzeko.

Egunero hurrekin dabilzan eskoletako irakasleek, etorkizuneko maisu maistrak prestatzen EHUn, NUP-en eta Huhezin lanean diharduten irakasleek eta beste hainbat alortetako adituek euren esparrutik egin zioten ekarpena Hik Hasi-ri, bai formazio alorrean, *hik hasi* aldizkariari dagokionez edo *Hazi Hezi*-ri dagokionez ere, baina baita Euskal Herriko hezkuntza-sistemak dituen hutsuneak betetzeko asmoz ere. Duela 20 urte irakasle talde zabal batek sortu

zuenean bezala, bilgune eta tresna izaten jarraitzeko asmoz baitarrai Hik Hasik bere 20. urteurrenean.

Duela 10 urte, hamargarren urteurrena ospatuz egin zen bilkuran bezala, ideia, premia eta egitasmo ugari mahai gaineratu ziren azaroaren 8ko bilkuran. Haietako hainbat ekarpen bi ildotara bildurik, honela laburtu daitezke Hik Hasi-ko talde zabalak egitasmoari eta Euskal Herriko hezkuntza-sistemari eginiko ekarpenak: batetik, haurrari, haren nortasunari eta garapenari protagonismo handiago emango dion hezkuntza-eremuan sakontzeko beharra azaldu zuten irakasleek, haurraren garapena bermatuko duen eskola humanizatu baten premia, haur burujabea heltzen lagunduko duena, non txikitatik lekua eta ahotsa izango duen, “ikasteko lekua baino, garatzeko lekua izan behar luke eskolak, edukietan beharrean, pertsonaren ongizatean zentratua

dagoen eskola behar dugu”.

Beste alde batetik, haur burujabe hori hezkuntza sistema propio baten ardatz izan behar dela adierazi zuten bilkuran parte hartu zuten askok, burujabe den haur hori mundutar izango denez, euskaldun eta mundutargisa bizitzeko prestatu behar dela proposatu zuten, “pedagogia-lana egin behar du Hik Hasi-k gure haur euskaldunak munduan bizitzeko eta erabakiak hartzeko prestatuak izan daitezen”, adierazi zuten, kasurako, hainbat partaidek, “herriak burujabe izateko, eskolak, pertsonak, haurrak izan behar du burujabe”.

Irakasleek, egunero-egunero gelan, erabaki txikietan, eskola komunitatean, gurasoekin eta lankideekin, ikerketa-mailan nahiz herri gisa bi ildo horietan gaitzeko etengabe formatzeko eta hausnartzeko duten beharra ere azaldu zuten hik hasiren talde zabaleko kideek.



elhuyar

APP GUNEA

ELHUYARREN APP BERRIAK
DURANGOKO AZOKAN

Elhuyar
hiztegi elebidun
guztiak,
orain APP
bakarrean!



Bisitatu Elhuyarren stand-a
(Artekale 55-56),
MUGIKORRERA ETA TABLETARA
deskargak egiten
lagunduko dizugu



adi! 

Aurten ere,
RENOVE PLANA
izango dugu.
Ekarri zure
euskara-gaztelania
hiztegi zaharra
eta % 30eko
deskontea zure
hiztegi berria
erosterakoan



ONLINE / OFFLINE



HITZMIX JOLASAK

Zein dira haur-eskoletan atxikimendu segurua bermatu ahal izateko kontuan eduki beharreko irizpideak



Eskolan ume batzuek helduarekin egoteko beharra izaten dute, ingurua esploratzeko interes eza, antsietatea eta erreferentziako zaintzailearen beharra baldin eta lasai egongo bada. Umearen erreferentziako zaintzaileak egiten badio harrera pozik gelditzen da umea; zeregin horretan beste zainzaleren bat arduratzen bada, ordea, negarrez gelditzen da. Kasu batzuetan, etxean ere horrela izaten da, umeak amarekin bakarrik egon nahi du. Horrek zer esan nahi eskolako zaintzailea "amatzat" hartu duela

eskolan? Hortaz, haurra eta amaren artean, edota haurra eta zaintzailearen artean, atxikimendu ziurgabea sortu da, nahiz eta ume horrek heldu horrekin egon nahi izan?

Beste batzuetan berriz, etxean umeak ez du uneoro amarekin egon beharrik izaten eta esploratzeko nahia izaten du, baina eskolan antsietatea eta ziurgabetasuna erakusten ditu. Horrek zer esan nahi du umearen eta helduaren arteko harremana edo atxikimendua txarra izan dela?

Bi kasuetan, gehienetan, erreferentziako zaintzailea ez badago, hasieran, negarrez egongo da umea, baina lasaitutakoan pixkanaka gelako txokoak esploratzen hasiko da.

Kasu horretan, beti kezka berbera agertzen da: umearentzat zer da hobe bere zaintzaile kutunarekin egotea (haurra berekin oso pozik dago baina ingurua esploratu gabe, jolastu gabe...) edota nahiz eta bere erreferentziako zaintzailea ez egon esploratzen eta jolasean aritzea?



Ezozi ARIZAGA LIZARRALDE
MAISTRA ETA PIKLER ILDOAN ADITUA

Atxikimenduaren teoriaren inguruko ikerketen emaitzek diote haur bat, estresaren eraginpean egon arren, bere oreka aurkitzera hel daitekeela eta homeostasisa berriz aurki dezakeela, baldin eta hartaz arduratzen den heldua eskuragarri badu eta, hauraren beharretara egokituz, heldua haren euskarri bada. Jakinekhoa da baldintza hori ez dela beti betetzen. Haatik, pertsona bakoitzaren historia pertsona horrek gurasoekin, familia sistema osoarekin edota zaintzaile esanguratsuekin izan dituen harremanen emaitza da.

Haur txikien garapenean zeriku-

sia daukaten helduek nola bizi dituzten beraien emozioak, hala jartzen dituzte jokoan haurrekin daukaten harremanean. Eta hori zeharo inkontzientea da, kontzientzia hartu arte. Pertsona askok bizitza osoa igarotzen du mundukoekin, munduarekin, zer-nolako harreman mota duen ohartu gabe, batzuetan egonezin galanta bizi izanda ere. Pertsona horientzat, halakoxea da bizitza, besterik gabe.

Atxikimendu seguruan hezi denak era horretako atxikimendua eskainiko dio bere umeari. Aldiz, atxikimendu ez-seguruan hazi denak hori

errepikatuko du (askotan ondorio larriak utzita), ez duelako besterik ezagutzen. Bere emozioak identifikatu ezin dituen helduak ezin izango ditu haurrarenak identifikatu, haurraren behar afektiboek erantzuna emateko prestutasun psikologikoan gabeziaren bat duelako. Bere buruarekin duen berbera. Jaso ez duena eman ezin izanaren arduradun ez da inor. Horixe da guraso askoren kasua. Kontuan izan behar dugu, horrez gain, haurtxoek beren gurasoen eredu beraiena balitz bezala hartzen dutela eta sistema horri jarraitzen diotela. Beraz, gero, gauza berbera egingo dute beraiantzat esanguratsua diren helduekin (hezitzaileekin, maisu-maistrekin...). Azpimarratu beharrekoa da egungo gizarteko garapen-ildoek haurren sozializazio- eta kultura-eremuan eskaintzen dituzten balditzek zer-nolako eragina duten pertsonaren garapenean. Haurraren heziketan eta garapenean, gurasoak ez ezik, erantzukizuna duten erakundeak ere heziketa-eraren arduradun dira, zer, nola, zer helbururekin... kudeatzen duten kontuan hartuta.

Esaten da badaude atxikimendu ez-seguruan hazten ari den haur batzuk. Gehienak dira kasu larriak. Ez omen dira beti nahaste bilakatzen. Nolanahi ere, ardura hartzeko beste kopurua badela esan daiteke.

Behar afektiboak asebate ez direnean eta sentimendu horien balioa airtortzen ez denean garatzen du haurrak atxikimendu ez-segurua.

Atxikimendu ez-seguruan, haurrak hainbat estrategia erabiltzen ditu helduarekin, bizitzako eremu guztietan segurtasuna eta gertutasuna aurkitzeko: gertutik jarraitu beharra, negarraldiak sarri, jatorduak luzatzea, besoetan edukitzeko eskaera, loadi laburrak...

Haurraren zaintzaz arduraz den helduak ez badioreparatzen kontzienteki haurrak atxikitzeke darabil-tzan gerturatze-jarreraren esangurari, haurra ez da gai izango helduaren jokabidea iragartzeko. Hortaz, ezin izango du antolatu kognizio-mailan hura gerturatzeke jarrerarako estrategia bat, helduaren erantzuna erakartzeko darabilena. Lotura ez-segurua izango du.

Haur-eskola, eta atxikimenduaren garapena bermatzeko irizpideak.

Hasteko, oso une aproposa da egokitzapen-epea, haur-eskolara iristen den familia ororentzat. Egokitzapen-epeko denbora haien beharretara egokitzen bada, familiaren eta zaintzaileen arteko harremana erraztu egingo da. Hezitzaileek denbora izango dute haurraren eta guraso eta familiaren arteko atxikimendua nolakoa den aztertzeke eta atxikimenduharremanean funtzionatzeko modu desberdinak daudela ulertzeke. Horrelako uneetan, lagungarria da, gelako estimuluetan barneratu aurretik, gurasoei haurra besoetan edukitzeko eskatzea, besoetan dutela aurrera diezaioten hitzen bidez zer une iritsi zaion. Egun batzuetan beraiekin egongo dela esango die, bertako zaintzaileekin eta beste umetxoekin batera, elkar ezagutzeko, tokia ezagutzeko... Eta, aurrerago, han dagoen pertsonak -izena beti erreferentziatzat hartuta- zainduko duela. Haurrari ordua iristen denean haren bila itzuliko direla esateko beti eska diezaike hezitzaileak gurasoei. Uler-tu beharra dago horrelako uneetan guraso askok izaten duten angustia. Atxikimendu berri segurua eraikiko bada (arautegi zurrunetatik at), familiaren eta haurtxoaren arteko atxiki-

mendua era batekoa zein bestekoa izan, haur-eskolak familiei iritsi berri diren tokia behar bezain segurua dela erakutsiko die.

Haurra bakarrik egotera iristen denean, banatzeko unean patxadaz jokatzeko komeni da. Jakin dezatela gurasoek aurrez zeinen garrantzitsua den une hori. Hobe da negarrez hasiko den beldurrez haurra konturatu gabe alde egiteko etxekoek erabil ditzaizketen trikimailuak saihestea. Negarra sanoa da. Ez da eroso helduentzat, baina bai sanoa haurrarentzat. Ez dago bereizteko uneko dolurik negarrik gabe. Seguruenik, une horretan hezitzaileak gertu edukitzeak segurtasuna emango die gehienei. Eta etxekoek alde egindakoan, haurrak beraien gauzez arduratzen hasiko dira poliki-poliki. Indibiduatzea beti atxikitakoarengandik bereizteko uneetatik dator. Tarteka, negar egingo dute haurrek, edo hasperen, baztertera joan eta, tristura aurpegitxoarekin, "ama, ama" deika hasiko dira, beren objektutxo besarkatuko dute, edota hozka egingo diote, ezetz esango dute eta, batik bat, erreferentziatzeko heldu horren beharra izango dute... Dena da naturala, bizitzako une berezi horretan. Prozesu horretan, haur gehienek katarroa, sukarra edota antzeko sintomak izan ohi dituzte, eta, indibiduatze-prozesuan, oso sanoak dira. Zaindu beharrekoak, era berean.

Etxekoak haurraren bila itzultzen diren unea ere zaindu beharra dago. Une horretan, minutu batzuez euste-besarkada barnekoia izaten **lagundu behar diegu** egunero. Une horietan, haurrak negar egin dezake, edota barre, beste aldera begiratu, edo ihes egin. Elkartze eta bat egite hori gertatuko da, alde bien ilusioa eta maitasuna berriro segurtatzen den arte. Soilik fase hori igaro ondoren emango dira eguneko azalpenak.

Haur-eskolako denboran haurrek izaten dituzten egonezinen inguruan

Atxikimendu-erak sailkatu egiten

Zaintza-uneetan sentituko du bereziki haurrak lotura berria eraikitze-ko konfiantza, eskaintzen zaion hori segurutzat badu



dira, haurren funtzionatzeko moduak ulertzeko. Saillapenak, ordea, lehegailu izan daitezke. Haurrari jar-tzen zaion etiketa zaindu beharra da-go, horrek zein beste edozein eratako aurreiritziek eragina izan baitezakete. Hori esanda, argi utzi behar da atxiki-menduaren inguruan haurrengan su-matutako egonezinak bideratu beha-rra dagoela.

Argi eta garbi, 6-8 hilabetetik 30 hi-labetera bitarteko sintomatologia guztia ez da atxikimendu ez-segurua-ren eragina. Garapen-etapa horretan ere, haurrek —gehiengoak behin-tzat— oso gertu behar dute atxikitako pertsona. Bereizketa-denborak, bai fisikoak eta baita psikologikoak ere, bere tolerantzia epea dauka, eta ez da egunero berbera izango. Bereizketa-denbora hori gaintzen denean da-go arriskua. Atxikitako helduaren fal-tak eragindako estresak haurraren funtzionalitate-eremua, oraindik garapen-etapagatik makala izanik, haurra desantolatzea ekar dezake, neurona-konexioak ere desorekatu-ta egoten baitira estres-uneetan.

Haur-eskolako zaintza-uneetan sentituko du bereziki haurrak lotura berria eraikitze-ko konfiantza, eskaintzen zaion hori segurutzat bizi badu. Horretarako, erreferentziazko zain-tzaileak ahalik eta zaintza-une gehien ematea da egokiena. Eta haurrak be-rarekin egon nahi izatea ez da inondik ere arraroa, “hornitzailetzat” ikusten duelako askotan. Ez dugu ahaztu be-har haurrek, hainbat hilabeteen, zain-tza ez ezik amaren bihotz-erritmoa eta tentsio arteriala sentitzeko premia ere badutela, bereak ere erregulatzeko

ko. Horri ere atxiki behar dio, bere bi-ziraupena bermatzeko. Jakina da haur asko heldu batzuekin errazago egoten direla beste batzuekin baino, amarengandik ezagutzen duten sin-tonia-erresonantzia antzekoagoa du-telako.

Beste gauza bat da haur batek zaintzailea “amatzat” hartzea. Hori gertatu bada, hezitzaileak era inkon-tzientean ilusio hori sorrarazi diolako izan da. Haurrak badu bere ama. Or-denarik ez izate horrek eragin negati-boak izan ditzake amaren eta umea-ren arteko erlazioan. Zer esanik ez, amaren eta hezitzailearen artekoan. Horregatik da horren garrantzitsua bakoitzak bere tokia aurkitzea eta ho-ri besterik ez betetzea, ez da gutxi-eta.

Erreferentziazko hezitzaileak sa-rrri esango dio beste hezitzaile batek zainduko duela, bera ez dagoenean. Beste horrek ere badakiela zer den behar duena, etxekoek haur-eskolan uzten dutenean egiten duten bezala.

Ingurua esploratzeko, besteekiko interesa pizteko, objektuak bizitzen ikasteko erabili ahal izateko, hau da, bakarrik aritzeko gaitasunak baditue-la jabetzeko, haurrak, nahitaez, esan-guratsua den heldu hori integratuta izan behar du bere buruan. Elkarreki-ko izatean datzan sentimendu horrek etengabea izan behar du. Atxikimen-dua irudikapen mentala da, eta, bero-ri eraikitze-ko, erreferentziazko hel-dua behar du.

Atxikimendua segurua ez dene-an, gabezia dago gorputza eta psikis-moa bateratzean. Haurtxo horiek, ba-tzuetan, erreferentziazko helduaren altzoan edo magalean egoteko beha-rra izaten dute, hau da, sostengu fisi-koa jasotzekoa, zaintzako uneetatik aparte ere. Osotasunean eutsita da-goela sentitzeko premia dute. Euste horrek ez luke izan behar helduak haurra bere altzoan barnerantz itzeko modukoa, euspina ematen diona baizik. Beti helduaren ezkerreko aldean kokatuta egotea komeni da. Haurra uzterakoan distantzia laburre-an egitea komeni da, askotan ukitze-

ko beharra izaten dutelako.

Haur-eskolak zenbait gako eskain diezazkieke gurasoei, beren haurra-rekin bizitzen ari diren atxikimendu-prozesua ulertzeko. Betiere, guraso-en eta haurtxoaren arteko erlazio-jokoan dagoen guztia errespetuz ja-sota. Haur horren gurasoak dira. Ez dute epaiketarik behar, eta haurtxoak ez du zatiketa gehiagorik behar. Ha-rrerako eta jasotzeko uneetan, lagun-du egingo zaie une barnerakoi batean euste-besarkada sortzen, gurasoek haurra beraien besoekin batu arte, une horretan haurrak negar egiten badu ere, bereziki orduan behar due-lako besarkada hori. Horretarako, be-ti gune bera, interferentziarik sortuko ez duena, erabiliko da, jesarleku ero-so batekin.

Haurtxoaren funtzionamenduan zerbait deigarria antzematen bada, le-henengo, gurasoekin patxadaz hitz egingo da, behatutakoa azalduko zaie, sintomak seinale direla esango zaie, haurtzaroa etapa ona dela la-guntzeko... Eta azalduko zaie espe-zialista baten esku-hartzeak lagun umearekin gai batzuk nola bideratu aurkitzen (batzuetan, erantzuna ho-rrelako zerbait izaten da: “ni horrela-koa nintzela esan didate, edo zailagoa oraindik, eta hemen nago orain, bizi-tza normala egiten”; edo “hitz egin dugu gure artean baina ez dakigu no-la egin”, edota “hau azkarra da, guri buelta zelan hartuko dabil beti”...). Hedatuta dago pentsamolde hori (ez etxean bakarrik), hau da: haurtxoari sasi-heldu erako manipulazio-gaita-sunak ezartzen zaizkio, erreala ez den kognizio-maila emanez.

Lagungarria da beti, eta beharrez-koa ere bai batzuetan, gurasoei beren semea edo alaba egunerokoan zer-nolako gaitasun eta baliabideekin ari den hazten azaltzea. Batzuetan (egu-nero ez), argazkiek laguntzen dute gurasoei eguneko gertaerak begi-bis-tan jartzen. Hala, haur errearen ga-rapen-prozesuko hainbat une ezagut ditzaten.

argitalpenak



Munstro bat edukiontzian
Maribel Aiertza / Mikel Santos

ELKAR

Gorka harrituta dago auzoko edukiontzi barrutik irteten diren hotsekin. Zaborra eramatera joaten den baikoitzean izugarri beldurtzen da. Baina, azkenean, edukiontziaren munstroa ezagutu behar duela bururatzen zaio beldurra gainditzeko. Misterioa argitzeko ausardia handia eta irudimena beharko ditu Gorkak.



Beti iparralderantz
Jon Arretxe / Cristina Fernandez

EREIN

Europako atea jotzen edo jo gabe ate gainetik pasatzen diren etorkin horiek nondik datoz? Kayes herrian jaio zen Drissa. Han bizi izan da bere gurasoekin eta bi anai-arrebeekin eta haurtzaroaren gomuta atseginak ditu, baina egun zoritzarreko batean aitak lanpostua galdu eta bizibidearen bila hasi behar izan zuen familiak.



Hiltzaileak
Leire Salaberria
PAMIELA

Modu misteriosu eta izugarri batean hasten da narrazio hau. Egileak beldurra eta egonezina sentiarazteko gai den narrazioa eraiki du. Bukaeran irribarrea pizten du, hizkuntzarekin jolastuz, alkimia bat eraikiz. Idazlea bera da ilustratzailea, eta teknika berezia erabili du. Album honek irabazi zuen Etxepare sariaren VIII. edizioa.



Ilargian kulunkantari
Antonio Rubio eta Xabier Olaso / Oscar Villan

PAMIELA-KALANDRAKA


Ilargian Kulunkantari bilduma 0-3 urte bitarteko neska-mutikoei zuzendua dago, eta beraientzat berariaz ondu dira piktograma poetiko edo poema hauek guztiak. Irakurle txikiaren begia hezi eta belarria ezituko duen irakurketa-erritmoa proposatzen dute bilduma honetako lanek.



Prime-Time
John Andueza Altuna

ELKAR

Bala eta Klemente detektibeak dira. Beren ibilera aldrebesen ondorioz, Ertzaintza utzi behar izan zuten, eta geroztik munta txikiko detektibe pribatuei egokitzen zaien edozein lan egitera behartuta daude. Oraingo honetan, ordea, berebiziko garrantzia duen kasu batean korapilatuta ikusiko dute euren buruan.



Berbontzi
Abel Amutxategi / Manu Ortega

EREIN

Berbontzi liburujale bat da. Eta, liburujale guztiei gertatzen zaien bezala, tinta eta papera dira bere mokadurik gustukoena. Arazo bakarra honako hau da: Berbontzik, noizbehinka, irakurri berri dituen istorioak ahoko zulutik kanpora botatzen dituela burbuila grisen itxuran, eta bere inguru osoa fantasiaz betetzen da.

hik hasi-ren proposamena

AMAIURKO GAZTELUA

Gure historiaren aztarnetan barrena, auzolanari esker

Urtetan amaiurtarrek auzolanean eta Aranzadi Zientzia Elkarteko kideekin elkarlanean egindako lanaren ondotik, herritarrek eraikitako pasabidea irekiko dute, bisitariak arriskurik gabe ikus ditzaten Amaiurko gazteluaren aztarnak eta ezagut dezaten gure historiaren pasarte hain garrantzitsua dena.

Amaiurko gazteluaren aztarnek duela ia bost mende, 1522ko uztailaren 15etik 19ra Gaztela eta Aragoiko armadek egin zuten setioa gogorazten dute. Fernando Katolikoaren gudaroste gaztelarrek Nafarroako erresumari eraso eta Gaztelak menpean hartu zueneko azken gudaren kokaleku izan baitzen Amaiurko gaztelua. Amaiurko gaztelua erortzean galdu zuen Nafarroako erresumak burujabetza. Halaxe dio gaztelua zegoen lekuan guda hura borrokatu eta galdu zuten nafarren omenez zutitu zuten monumentuan ezarritako inskripzio batek: "Napar askatasunaren alde Amayurko echarrian borroka egin zuten gizonai. Betiko argia. 1922".

Amaiurko herriaren ondoan, muiño batean daude gazteluaren aztarnak; hondakinak baino askoz gehiago dira, alabaina, Amaiurko gaztelua



gaztelu bat baino gehiago ere izan baitzen. Ikurbat: Nafar herriaren erresistentziaren sinboloa. Eta orain urtetan amaiurtarrek auzolanean eta Aranzadi Zientzia Elkarteko kideekin elkarlanean egindako lanaren ondotik, gazteluaren aztarnak modu seguruan ikusteko herritarrek eraikitako pasabidea irekiko dute abenduaren 13an, Nafarroako erresumaren sinbolo garrantzitsuaren aztarnak ikusteko eta historia ezagutzeko aukera emanaz.

Gaztelak Amaiur setiatu zuenean 200 bat gudari gogor borrokatu ziren Nafarroako Erresumaren alde Jaime Velaz Medrano alkaidearen agindupean, aurrez aurre, ordea, Gaztelako armada zuten, 10.000 soldaduz osa-

tua. Borroka epiko hori hainbat abesti, poema eta nobelaren inspirazio iturri izan zen; gogoangarrietako bat Lauaxetaren sorta izan zen.

Gazteluaren eraikuntza noizkoa den zehazten duen dokumenturik ez da ezagutzen, baina 1191ko izkribuetan dagoeneko gazteluzainaren izena agertzen zen, eta beraz, ordurako bazen gaztelua eraikia. Amaiurri buruzko lehen aipamena 1095ekoa da, herriko elizari buruzkoa, hain zuten ere. 1522an gaztelua lehertzeko agindua eman zuten. Gerora, isildua eta desitxuratua izan da Nafarroako erresumaren erorketa eta Amaiurko gazteluaren benetako galera, historia ofizialak Nafarroa guda gabe eta borondatez anexionatu zela Gaztelako



erresumara idatzi baitu. Haatik, kokagune honetako gudak erakusten du Nafarroaren konkista benetan krudela izan zela, kasurako, Amaiurko gazteluko defendatzaile Jaime Velaz de Medrano eta haren seme Luis kartzelan pozoitu egin zituzten, gaztelarrekin bizitza errespetatuko zietela agindu bazieten ere. Gaztelako armada horrek berak 5.000 lagun baino gehiago hil zituen Noaingo sarraskian. Nafarroako konkistak, errege-erreginen aldaketa ekartzeaz gain, ondorio lazgarriak izan zituen herritar xumeentzat, burujabe zen erresumak independentzia galtzean okupazio-armada bat ezarria izan baitzen mende batez bederen; gainera, gerra gastuek eta Nafarroa Beherearekin salerosketak debekatzeak Nafarroa pobretzea ekarri zuen; Inkisizioak, berriz, sorgin-ehiza sustatu zuen, eta euskara lurralde osoan baztertua izan zen.

Amaiurko herritarren lana

2005ean hasi zen Aranzadi Zientzia Elkarteak Amaiurko gazteluan indusketak egiten, eta orduz geroztik abuztuero egin dituzte han indusketak. Azken udan aztarna horiek guztiak ikusi ahal izateko pasabide bat eta eskailerak eraiki dituzte herritarrekin batera. Eta orain, abendu honetatik aurrera, erabilgarri egongo da pasabide seguru hori bisitariarentzako. Erdi Aroko europar estatu txiki bateko gaztelu txiki bat zen Amaiurkoa, Nafarroako Erresumaren defentsarako eraikitako gaztelua, jatorrian, dore bat besterik ez zela erakutsi dute indusketek. Amaiurren azaldu diren arrastoak garai ezberdinetakoak dira, jatorrizko eraikinaren gainean aldatketak egin baitzituzten XVI., XVIII. eta XX. mendeetan. Konkistaren os-



Amaiurko gaztelua

Bisita gidatuak:

Nafarroako Erresumako azken gotorlekua bisitatzeko Amaiurko errotara jo behar da: www.amaiurkoerrota.com. 1522an Gaztelako Erresumak buruturiko konkistan eroritako azken defentsa ezagutarazteaz gain, Amaiurko errotak bere funtzionamendua ezagutzeko aukera eskaintzen du, baita taloak egiteko eta dastatzeko tailerrak eskaintzen ere. Herriko bisita-gidatua ere eskaintzen dute. Hau guztia, ikasle-taldean eta adinen arabera egokituta egiten dute.

Telefono zenbakia: 619 95 57 09 - 660 73 17 81

info@amaiurkoerrota.com

- **Otordua non egin:** Mendialde jate-txea, telefonoa: 948 45 30 60.

Amaiurri buruzko informazioa:

Altitudea: 281 metro.

Biztanleria: 253 biztanle.

Iruñetik 58 km-ra dago. Herrira heltzeko N-121-B errepidea hartu behar da, eta Otsondo mendatea igotzen hasita, eskuinera dagoen desbideratzeak herrira eramaten gaitu.

Aipatzekoak dira:

Amaiur 1665ean banandu zen Baztandik, eta 1969an, alegia, hiru mende gerora, berriz ere bat egin zuen Baztanekin. Herriaren sarrean arku dago, herrigunearen muga adierazten du. Arkua baino lehen XVII. mende-bukaerako gurutzarria dago.

Amaiur ohiko karrika-herria da, kilometro erdiko luzeran hedatua. Herriko etxeak arkitekturaz anitzak eta aberatsak dira; izan ere, ibarreko kategoria tipologiko gehienak ageri baitira bertan. Ondoren aipatzen diren etxeen eta jauregien jauregi-arkitekturaren itxura nabarmendu beharra dago:

- Arretxea jauregia (45. zenbakia). XVI. mendean nagusia zen.

- Borda jauregia. 1728an lortu zuen oinetxe kategoria.

- Arriada etxea. Bertan egiten ziren batzarrak XVI. mendean.

Herriko eliza, Jasokundearena, Erdi Arokoa da, XVI. eta XVIII. mendeetan hainbat aldiz berreraikia. Elizak "Cavaille-Col" organo erromantiko ederra du.

tean, Gaztelakoek mugaldeko gotorleku bihurtu zuten. Indusketa-lanetan denetarik agertu da: armak, 14 kiloko kanoi balak, aljibe edo ur-zulo bat, beirazko piezak, estandarteetako puntak... baina horiek guztiak erakusteko lekurik ez dute oraindik amaiurtarrek, nahiz eta ikasle-bisitariarentzako erakusgai dituzten.

Amaiur Baztango bailarako azken herria da, eta Urdazubirako, Ainhoarako, Ezpeletarako eta Zugarramurdiko bidean dago. Gaztelua Iruñetik Baionarako bide nagusiko bidaiarien eta merkantzien joan-etorriak zaintzeko leku estrategikoan kokatua ze-

goen, eta horrexegatik, Amaiurko gaztelua kokatzen den muinoa Baztangoa, hau da Baztango ibarra, ikusteko leku paregabea da. Erratzu, Azpilkueta, Arizkun eta Amaiur bera ikusteko kokagune ederra da.





Itsaso GUTIERREZ

HEZITZAILEA ETA MUSIKARIA

“Amatxori esango diot erosteko bi erloju, bata niretzat, eta bestea zuretzat, Maite. Zurea handiena”. Gaur ikastolan orduak ikasi ditugu. Erlojuak. Makiltxoak bostean jartzean eskua jaso behar genuela esan digu Maitek, gure andereñoak. Ni konturatu naiz. Bostean zegoenean esan diot, “Maite, Maite, bostean dago”, eta irribar egin dit. Nirekin pozik jarri da, eta bihar erloju bat oparituko diot. Amatxori esango diot.

Ainhua nire laguna da, oporretan kanpinera joaten naiz berarekin, eta bere aitarekin, eta bere amarekin. Nik ez dut aitarik. Ama eta biok bizi gara bakarrik etxean. Ez dut inoiz izan. Baina lagun pila bat ditut. Ainhua, adibidez. Berarekin egoten naiz ama lanera doanean. Eta bere amarekin. Berak badu aita, baina lanean egoten da. Ainhoaren amak txutxeak erosten dizkit.

Lorea ere nire laguna da, eta Ekain. Eta Jokin. Beno, Jokinek batzuetan jo egiten nau. Maitek esaten du haserretzen delako jotzen duela, eta ez egiteko kasurik. Baina niri ez zait gustatzen. Gero amatxori esango diot gaur ere jo nauela. Amatxok Jokinek jotzen banau, nik ere bera jotzeko esaten dit; edo, ez berarekin jolasteko. Baina, Jokin jo-

Amatxori esango diot...

tzen dudanean, Maitek ez egiteko esaten dit. Nik Jokin pozik egotea nahi dut. Horregatik batzuetan berarekin jolasten dut, ez haserretzeko, agian horrela ez du hainbestetan joko. Erlojuren bat izango al du berak? Utziko diot nirea, amak erosten didanean.

Nire lagunak handiena Ekain da. Ekainekin batzuetan piratetara jolasten dut. Eta kotxeekin. *Karrerak* egiten ditugu, eta *zirkuituak*. Badakizu, ikastolan badugu ere etxe handi-handi bat. Batzuetan panpinak hartzen ditugu eta kanpinera goaz. Ainhoak ere gurekin jolasten du, ez beti. Gaur ez. Ez zuen nahi. Badugu oihal erraldoi bat. Lurrean jarri dugu. Eta janariak eraman ditugu. “*Landas*”etan egon gara. Eta *piszinanplisti*-plasta egiten. Eta *tobogane*-tik bota da Ekain. Eta busti ditu panpinak eta pirata itsasontzi bat aurkitu dugu eta oihalaren azpian ezkutatu gara. Beno, gure itsasontzia zen. Zeren bale batek jan gaitu. Eta Maite andereñoak zapiak jarri dizkigu buruan, piratek bezala, eta kartoizko ezpatak egin dizkigu. Eta balearen sabela puskatu dugu. Eta ate bat ireki, eta atera gara. Eta panpinak salbatu behar genituelako bueltatu. “Bagoaz lagunak, abordatzera!”. Eta atera ditugu. Ekainek platerak ekarri ditu eta jaten eman diegu, gose ziren-eta. Lo egiteko ordua iritsi da, eta mantitakin goxogoxo utzi ditugu dugun saski urdin batean. Buruko zapia kendu du Ekainek, eta ni, orduan makiltxoak bostean zegoela ikusi dut eta Maiterengana joan naiz. Irribar egin dit.

Maitek “jasotzeraaaaa!” esan du. Hamaitakoa jan eta atarira. Euririk ez zueñez egiten baloia eraman dugu. Nik futboleko jolastea gustuko dut. Ainhua sokasaltoan egoten da Lorearekin eta horiekin.

Ekainekin *ekipo* egiten dut. Berak beti nahi du atezain izan. Maitek txandakatzeko esaten dio. Baina Ekainek beti nahi du izan atezain. Ni ez naiz inoiz izaten. Arratsaldetan bai, Ekainen aitaxorekin. Ez dit inoiz golik sartzen. Denak gelditzen dizkio! Amatxok ez du jolasten, uste dut bere zapatek ez dakitela korrika asko egiten. Ekainen amarekin gauza garrantzitsuak hitz egin behar ditu. Bankuan egoten dira beti. Maitek ez du ezta ere atari orduan gurekin jolasten, segurunik ez du jakingo. Sokasaltoan jolasten egoten da, Lorea, Ainhua eta horiekin.

Gaur Loreak neskek ezin dutela pirata izan esan du. Eta esan diot, ezetz, Ane pirata dela, eta neska dela. Loreak, neskek ezin dutela kotxeekin jolastu esan du, telebistan ikusi duela. Eskuan nuen kotxea ezkutatu dudanean Maitek lasai egoteko esan dit, jolastu dezakedala. Amari galdetuko diot. Neskek panpinekin jolastu behar dutela esaten du Loreak, bere aitaxok hala esan diola, eta amonak. Horrela dela. Ekainek esan dio ezetz. Nik Maiteri esan diot, ni panpinekin jolasten dudala, etxean panpinak eduki baditudala. Badut *Spiderman* bat, eta *Desdentado*. Gerrak egiten dituzte eta mundua salbatzen dute, ilargiraino doaz zeruan zehar. Loreak esaten du ni mutila naizela futboleko jolasten dudalako. Amari zer naizen galdetu behar diot. Eta esan ere egiten du, neskak eta mutilak ezkondu behar direla pozik bizitzeko. Aitarik ez dudalako amatxo triste dagoela eta betirako bakarrik. Ez zait gustatu; nire amatxo nirekin dago, ez bakarrik, eta pozik. Gero esango diot, hiru erloju erosteko bat niretzat, beste bat Maiterentzat, eta handiena berarentzat, pozik jartzeko.

“Haurraren konfiantza eduki behar dela frogatu du zientziak, susmopeko pedagogiaren gainetik”

Rafael Cristobal

■ zauden lekuan
jaso
gaztezulo
aldizkaria



@Gaztezulo

harpidetu

Tel.: 943 457 250
harpidetza@gaztezulo.eus



urtean
22
euro



gaztezulo ^{eus}
HI ETA HIRE MUNDUAN

Purritx, Porrotx eta Mari Motots

Aurten go nobedadeak!!!



Txo, mikmak txikia CD-liburua:
19 abesti eta 19 ipuintxo.



Bizipoza + Sentitu... Sinfonikoa
DVD bikoitza:
Zuzeneko ikuskizunak



Sentituz bilduma
ipuinak:
Ebeko bikienentzat
kartoizko 4 ipuintxo.

Biko puzzlea:
Ebeko bikienentzat,
zenbakiekin eta
pertsonalekin jolasteko.



Dominoa:
Domino klasikoa eta
gure pertsonaien jolasa.



Ongi etorri Pupu eta Lore Plaza
ipuinak:
Bilduma berriko
hirugarren ipuinak.

Bizipoza Plaza
ipuinak:
Bilduma berriko
bigarren ipuinak.



eskaerak: www.katxiporreta.com

Katxiporreta
KONPANI

Oria etorbidea, 10
Brunet Eraikina 5, E-4
20160 LASARTE-ORIA
Tel.: 943 368 404